

...eta!
Kitto!

2016-V-20

974 zkia.

GANTXILAK deitutako kalejira

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurkitzen diren dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkarta@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez, Uxue Igarza
eta Haizea Arizaga.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.100 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eskutitzak

Epaiketa politikorik ez

Martitzenean bederatzia euskal herritarren aurka-ko beste epaiketa bat egin zen Madrilgo Audientzia Nazionalen. Kasu horretan, 2010eko irailaren 14an bederatzia atxilotu zituzten Fernando Grande-Marlaska epaileak aginduta. Bi urtez behin-behineko espetxealdia bete eta gero, maiatzaren 17an epaiketa eguna iritsi zen. EKINeko zuzendaritzako kide izatea leporatuta, 9 eta 15 urteko espetxe-zigorak eskatzen zituzten. **Aniaiz Ariznabarreta eibartarra** zen horietako bat. Bost egun inkomunikatuta eduki zituzten bahitu guztiak eta egun horietan guardia zibilen eskuetan tortura latzak jasan zituzten. Eta tortura bidez lortutako aitortzak ziren euren aurkako froga nagusiak.

Zoritxarrez, badakigu herri honetan estatu espainolak bere helburuak lortzeko oinarritzko eskubi-

deen kontrako biolentzia erabili izan duela betidanik. Eta ezin da ahaztu tortura ez litzatekeela posible izango beste aldera begiratzen dutenen kolaborazioa izan ezean. Martitzeneko epaiketan, aldean arteko akordioa medio, auzipetuetako zortzi ez dira espetxera itzuli beharko. Zoritxarrez, Ugaitz Elizaran hilabete batzuetarako espetxera bueltatu behar izatea posible da oraindik. Argi geratu dadila: akordioa egon, egon da, baina ez da justiziarik egin. Horregatik fartsa horiekin amaitzea eskatzen du ezker abertzaleak, eskubide zibil eta politikoen urraketarekin amaitzeko ordua delako. Auzipetu guztiak, eta bereziki Aniaiz Ariznabarretari, gure poz eta elkartasun guztia adierazi nahi diegu. **Torturarik Ez! Epaiketa politikorik Ez! Aniaiz Libre!**

Eibarko Ezker Abertzalea

“Eibar, izan zaitetz Eibar”

Eibar, aldatzen ari zarela entzun dut, auskalo ez den txarrerako izango, aspaldi jendea beharrera zetorren horretako beharra zegoelako, berriki industriak gutxitu dituzu, bestalde merkatalguneak handitu. Armeria eta Lanbide eskoletan gaur egun ikasle gutxiago dago, orain gazteek nahiago dute joatea herritik kanpo unibertsitatera, bizitza hor nonbait antolatzeko asmoz makina bat ez da hona itzuliko.

Eibar, ez dakit bihar ze izango zaren, zeure herritarrek ebatziko dute, ahalmena zalantza barik izango du bertan eta kanpoan jaiotakoak, arren, komertziala zein industrial besterik ez diren. Amets dagit justua izango zarela, dir-dir elkartasunaren eredu, atseginez Euskal Herriaren maitale, munduko herriekin auzolanean, oro abegikorra eta euskalduna Toribio Etxebarria bezala.

Ibon Muñoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

LAMAUKUARI BOTA.- Ume jolas bat. “Lamaikuari bota bost intxaurrekin!”.

LAMAIN PUPUA ETA LAUZIN TRAPUA.- Errefraua. Beti kexaka eta hiletan jotzen dabilenari buruz esaten da.

astean esanak

“Jende askok, eta batez ere Gasteiztik kanpo, azterketa botaniko-geologikoa egiten dizu esaten duzunean gasteiztarra eta euskalduna zarela: ea landare arraro hau nongoa den, zure gurasoak, zure amona... Ez ditut erantzuten, gustu txarrekoa iruditzen zait. Jende askok, Gasteiztik kanpo, hemen euskararena gauza arraroa dela pentsatzen du... eta 20.000 euskaldun egongo dira. Igual zure herrian baino euskaldun gehiago dago Gasteizen. Nahiz eta hizkuntza nagusia ez izan eta kalean arabiera edo gaztelania entzun”

(RIKARDO ARREGI, IDAZLEA)

“Lanaren arabera sexu bereizketa sozialki onartzen da. Gorbata bat erostera banoa, gizezkoentzako erroa dendetan ez dago emakumerik. Zergatik? Ez dagoelako hautagairik, edo ez delako kontratatzen? Hautagairik ez badago, galdetu beharko da zergatik den horrela. Baina egia da estereotipoak oso eraginkorrak direla, eta oso onartuta daudela. Osasun zentro batean erizaina gizezkoa izatea gaizki ikusten baldin bada, ospitale pribatu batean ez dute gizonik hartuko. Horren inguruan tolerantzia maila oso handia dugu. Ohitura batzuek estereotipoak egonkortzea dakarte.”

(JAIME CABEZA, VIGOKO UNIBERTSITATEA)

“Petrolio 130 dolarrean zegoenean diru asko zegoen Venezuelan, eta hori ustelkeriara edo eraginkorrek ez diren politiketara bideratu zen. Orain, upela 30 dolarrean dagoela, zuloa dute kutxan. Chavez gobernura iritsi zenean, Venezuelaren esportazioen %90 petrolio gordina zen. Egun %05 da: 17 urte izan dituzte eta ez dira gai izan ekoizpena dibertsifikatzeko. Arrautza egosiak inportatzen dira... Hori bai zentzugabekeria! Nazionalizatu diren enpresa batzuetan ekoizpena erdira jaitsi eta langile kopurua bikoiztu egin da. Kudeaketa txar hori gobernu aurrerakoien erantzukizuna da”

(RAUL ZIBECHI, GIZA IKERTZAILEA)

**FELIX MORQUECHO ERRASTI****"Ba al dakizu zer den?"**

Gaur Armeria Eskolan egon naiz eta bertan ondokoari mobila hasi zaio musikan. "Ba al dakizu zer den?". Jakin ez ba, Lizartzako Gaiteroak ziren. Haien soinuk berehala ekarri dit burura ekainaren 23a Estaziño kalean. Bertan ikusi ditut musikariak urtero urtero, mende honetako San Juan bezpera guztietan. Horretaz pentsatzean ilusioa sortzen zait, eta nekea ere.

Maiatzean Eibarren ez dira loreak bakarrik ugaritzen. Hilabete hotzetan prestatutako ekitaldi guztiak forma hartzen hasten dira. 'Depor'eko presidente berriak (listoia altua utzi diote, bai) aktibitate pila zeuzkatela azaltzen zuen orain dela gutxi: argazkilariak jo ta su, Euskal Jaia gainean... Horretaz gain, jaiak azaltzen dira non nahi, Urkizun Galiziako Etxea, Santa Kruz-en gauza berriak ospatuz, Urkiko jaietako lasterketako kartelak kalean daude jada... Eta bata eta bestearen artean Eibarko kaleen abiada handituz eta handituz doaz. "Ba al dakizu zer den musika hau?" besteak. 'Marmotaren eguna' filman bezala, pentsatu baino lehen bertan izango gara berriro gaiteroen zain, urte bat zaharragoak, hori bai. Ordurako balantzari nekea kenduko diogu eta ilusioz joango gara, argazki desberdinen bila aurten. Nekeak etorriko dira gero baina gozatu dezagun momentua, iraganeko beste argazkitxo batean bihurtu baino lehen.

Eskualdeko Nagusi Aktibuen Topaketia

Eskualde Nagusi Aktibuen I. Topaketia antolatu dau bixarko Udal Kirol Patronatuak, "biztanle pasibuarengana gerturatzeke asmuarekin. Eskualdian sektore horrendako antolatzaren diran jarduerak kalera etarata, jendiaren artian ohitura osasungarriak bultzatzia lortu nahi dogu". Goizeko 09:30xetan ekingo ditse programiari: Untzagan taldiak antolatu eta kamisetak banatu eta gero, goiz osuan zihar jarduera ezberdiñak egingo dittue. Taldietako bat Museora bisitan juango da eta bestiak, barriz, Astelena frontoian biharrian jardungo dau. Ondoren, 13:00ian agintarixak harrera egingo ditse eta, herriko tabernetan bazkaldu eta gero, atzera be Untzagan batuko dira, 15:30xetan Berdintasunaren pasialekutik Ipurua kiroldegira oiñez juateko. Arratsaldeko 16:15xetik aurrera, barriz, herritar guztieri zabalik egongo diran jarduerak hasiko dira: udal-erri bakotxak bere proposamenak aurkeztu eta gero, 18:30xetan ginkana egingo da eta, agurtu baiño lehen, 19:00etan jendiaren aurrian goizian ikasitako koreografia erakutsiko dabe. Topaketiari lotuta, bestalde, domekara arte kiroldegixan Eibarko raketisten erakusketia ikusteko aukeria egongo da eta aurkezpenian Untzagako jubilauen abesbatzak lagunduko ditse.



30 ikastaro eta jardunaldi antolatu dittu UEU-k 44. Udako Ikastaruen harira: Iruñean 6 ikastaro eta jardunaldi 1 emongo dira; Eibarren, 11 ikastaro eta 4 jardunaldi; Baionan 4 ikastaro; Bidarten eta Donostian jardunaldi bana; eta Bilbo eta Zumaian ikastaro bana.

San Isidroren omenezko jaixa

Urtero bezala, eskualdeko basarritarrak Arraten alkartu ziran domekan San Isidro euren zaindarixaren omenezko jaixa ospatzeko. Eguraldixa lagun, giro ederrian emon eben egun guztia, goizetik hasi ziran ekitadixekin. Ohitturiari jarraitua, mezia, prozesiñua, eskualdeko produktuak eta herri-kirolak izan ziran protagonista nagusiñak, baiña aurten barrittasunik be egon da: ikasliak nekazal bizi-

**Debarroa ekimenaren sarixak banatu ziran. Leire**

modura gerturatzia billatzen daben Debarroa proiektuan hamar urtian parte hartu daben ikastetxieri esker ona adierazteko oroigarriak banatu zetsazen eta, horrekin batera, programiari lotuta egin dan ipuin, bertso eta marrazki lehiaketako irabazleri be sarixak emon zetsazen.

Ume errefuxiatuen aldeko "expo-outleta"



HOTZ alkartiak "expo-outleta" antolatu dau, ume errefuxiatuerei laguntzeko asmuarekin. Ekaiñian (3tik 19ra bittartian) egingo daben salmenta-exposiziñorako lanen bat dohaintzan emon nahi dabenak maiatzaren 23tik ekaiñaren 1era arte eukiko dau horretarako aukeria, Arrate Kultur Elkartearen buleguan, goizez 10:30etatik 12:30etara (astelehen, martitzen eta eguenetan) eta arratsaldez, barriz, 17:00etatik 19:00etara (eguztenetan). Jasotzen dittuen lanak "outlet" prezian erosteko aukeria emongo detse jendiari eta saldutakuari esker batzen daben diru guztia "umieri ilusiño solidarixoz betetako motxilak bidaltzeko" erabilliko dabe. Donaziñuan emoten diran lanekin batera txarteltxo bat entregatzia eskatu dabe antolatzailliak, egilliaren izen-abizenak, telefono zenbakixia, erabillittako teknikia eta lanak balixo dabena idatzitta (egilliak markatzen daben kopuruari %50 edo %75-ko deskontua aplikauko detse). Saltzen ez diran lanak, bestalde, egilliari bueltatuko jakozela emon dabe aditzera.



Parte-hartzailliak AFESD diagnostikorik ez daken gaixotasunen bat daken umieri lagundu zetsen. Leire

Zumba maratoi arrakastatsua

Jende mordua animau zan zapatuan Astelena frontoian egindako II. Zumbathoi solidarixuan parte hartzera. Goiz osua saltoka eta dantzan geratu barik emon arren, pozarren ibilli ziran danak. Izan be, kirol pixkat egittiarekin batera, parte hartu ebenak AFESD, diagnostikorik ez daken gaixotasunen bat daken umieri be lagundu zetsen eta, esaera zaharrak diñuan moduan, "gustoko tokixan aldaparik ez" daguala argi laga eben.



autuan

EKUADORREN ALDEKO PARRILLADIA

Eibarko Sozialistak parrillada solidarixua antolatu dabe maiatzaren 28rako, Ekuadorren lurrikarak kaltetutakuerei laguntzeko dirua batzeko asmuarekin. Ekitaldixa Untzagan (harmailen aldian) izango da, 18:00etatik aurrera: saiheskixa eta oillasko-heguak parrillan erre eta salgai ipiñiko dittue eta hórrirei laguntzeko edarixak be eskinduko dira.



1948-an JAIXOTAKUAK

Ekaiñaren 11n Chalcha jatetxian afalduko dabe urte horretan jaixotakuak. Juan nahi dabenak ekaiñaren 7rako 60 euro sartu biharko dau Laboraleko 3035 0078 87 078 10 31 811 kontuan, izena eta abizenak jarritta.

TXOSNETARAKO ESKAERIAK

San Juanetan txosnia ipiñi nahi dabenak horretarako eskaeria egin biharko dabe Pegoran, ekainaren 3rako (14:30xak baiño lehen). Informaziño guztia eibar.eus helbidian dago.


Angel Lopez de Egilaz

"BENTA BERRI TABERNAKOA"

Maiatzaren 17an hil zen, 80 urterekin

"Gure Eskerrak Alaizako Gizon Haundiari"

Bentako lagunak



Begixetako gaitzeri buruz berbetan

Mercedes Zabaleta oftalmologuak aurreko astian Osasun Ikasgelak egitasmuaren barruan eskindutako hitzaldixan begixetako gaitzeri aurre egiteko metodo barrixenen barri emon eban: miopia, hipermetropia eta astigmatismua Excimer laserra erabillitta zelatan tratatu leikiazan, kataratak zelatan sendatu edo glaukoma garaiz antzematiak dakan garrantzixaz jardun eban, bestiak beste. Sendagilliak azaldutakuaren arabera, "soluziōnirik egokixena emon ahal izateko diagnostiko zuzena egittia ezinbestekua da". Hitzaldira juandakuak kataratak laserrakin sendatzeko ebakuntza zuzenian ikusteko aukeria euki eban, denbora errealian grabautako bideuan eta, horrekin batera, glaukomari buruzko azalpenak emoteko aprobeixau nahi izan eban hitzaldixa. Amaieran, jendiak egindako galderei erantzun eta zalantzak argittu zittuan. Poliklinika Gipuzkoaren eskutik egingo dan hurrengo saiauda os-



tian, urriaren 19xan izango da: Maria Navajas, José Luis Elozegi eta Javier Murgoitio espezialistak bihotzerriari, errefluxuari eta dibertikulueri lotutakuen gainian jardungo dabe berbetan, hōrreari aurre egiteko teknikak eta intereseko beste kontu batzuk azaltzeko.



Arduraz kontsumitzeko garrantzixaz ohartarazteko aukeria izan zan. Leire

Arduraz kontsumitzen

Aldatzen eta Egoaizak antolatutako Kontsumo Arduratsua I. Astiari agur esateko, hainbat jarduera hartu zittuan anbulatorixo pareko parkiak zapatu goizian: bidezko merkataritzako eta tokixan tokiko elikagai ekologikuen erakusketia, salmenta eta dastaketia-ekin batera umiendako taillarra, muskia eta bestelakuak eskindu zittuen, jendia arduraz kontsumitzeko garrantzixaz ohartarazteko.

Kartzela saihesteko akordixua Madrillen

Madrillen, Auzitegi Nazionalian 8/2013 sumariuari lotuta martitzenian hasittako epaiketari Aniaz Ariznabarreta eibartarra eta beste auzipetuak kartzelara joatia saihesteko akordixua egin eban. Horren arabera, Ugaitz Elizarani bi urte eta hiru hillebeteko zigorra jarriko detse, Sandra Barrenetxeari urtebete eta bederatz hillebetekua eta Aniaz Ariznabarreta eta gainerako auzipetueri biña urtekua, baiña horretarako Segurako auzixan epaitutakuen antzeko testu bat onartu biharko dabe.

Eibarko Libre-ren arabera, "pozten gara Aniaz eta bestiak etxian dittugulako, baiña ez da justiziarik egin. Auzitegi nazionalak salbuespen auzitegixa izaten segitzen dau, euskaldunak epaitzeko bereziki sortutakua, eta ez dau epaiketari justurik bermatzen. Estaduak klabe batzuk aldatu badittu, euskal jendartian isolatuta geratu dalako eta jendiaren eritrixak jarrera aldatzera derrigortu dabelako izan da".



Pagatxakuak Mendaroko txokolate fabrika

Pagatxa emakumien alkartekua maiatzaren 11n exkursiñua egin eban Mendarora, hango Saint Gerons txokolate fabrika bertatik bertara ikusi eta, jakiña, 1850. urtiaz geroztik han egitten dittuen txokolatiak probatzeko asmuarekin.





Geoparkeen Astea ospatzeko jarduerak

Euskal Kostaldeko Geoparkeak aurten be Europako Geoparkeen Astea ospatuko dau, "Geoparkeko baleazaleak" goiburuari jarraituta. Horretarako gaur hasi eta maiatzaren 29ra arte garatzeko hamaika ekintza antolatu dittue Geoparkeko hiru herrixetan, Mutrikun, Deban eta Zumaian. Programia aurkezteko ekitaldixan hiru herrixetako alkatiak hartu eben parte, Geoparkeko arduraduna dan Leire Barriuso eibartarrarekin batera eta, datozen egunotarako antolatu dittuen jardueren barri emotiarekin batera, herritarreri hórretan parte hartzeko gonbidapena egitteko aprobetxau eben. Argazki-erakusketia, doako bisita gidatuak, "Euskal baleazaleen triskantza" dokumentalaren proiektiñuak, Mendatako talaiara ibilaldi gidatua, Lasturko interpretaziño guniaren inauguraziñua, Kepa Junkera & Sorginak taldiaren emanaldixa eta beste hamaika jarduerarekin osatutako programia prestatu dabe. Jarduera guz-



tien inguruko informaziñua www.geoparkea.com helbidian topauko dozue.



Errigorako eskaeriak 24ra arte

Maiatzaren 24ra arte iraungo dau Errigoraren kontserben kanpaiñiak. Internet bittartez ez eze, eskaeriak Eibarren egitteko aukeria dago (AEK-n, LAB-en egoitzan, Depor eta Beleko tabernetan, Untzagako jubilatuetxian eta hainbat eskolatan), baitta eibar@errigora.eus helbidera idatzitta be. Konserbak ekaiñaren 8xan banatuko dittue, 17:00etatik 20:00etara Untzagako jubilatuetxian.

Jarduera berezixak Museuan

Museuen Nazioarteko Egunaren harira jarduera berezixak antolatu dittue Eibarko Museuan be. Nahi daben guztieri Museua ezagutzeko aukeria emoteko asmuarekin, domekara arte sarrerria duan izango da. Horrez gain, eguaztenian Urkizu eskolako 5 urteko 40 ikasleren bisita jaso eben. Eta domekan, 11:30ean "Orain dela 100 urteko Eibartik paseatuz" dohaiñeko bisita gidatua eskinduko dau Nerea Alustiza historialarixak (oinguan gazteleraz izango da).

Aurreko asteburuan egindakuari jarraituta, ibilaldixan sei geldialdi egingo dira, eta bakotxian 1910. urteko Eibarko irudi bat jarriko dabe. Irudi hórrek abiapuntutzat hartuta, gure herriko arkitekturiari eta hirigintzari buruzko azalpena emon eta azken 100 urtiotako billakaeria esplikauko dau Alustizak. Azalpena emoterakuan industriaren historiari be tartia eskinduko jago, holan Armagintzaren Museuan ikusgai dagan bilduma herriko toki ezberdiñeri lotzeko. Izena emon nahi dabenak bixar arte eukiko dau horretarako aukeria, museoa@eibar.eus helbidera idatzitta edo 943 708446 telefono zenbakira deittuta. Urteeria Estaziñotik izango da (Dultzaineruaren estatuaren aldamenetik) eta bisitak ordu biko iraupena izango dau.



URKUSUTIK

Euskararen aldeko OLATUA BIHAR ailegatuko da



Artxiboa

Eguerdiko 13:00etan abiatuko da Urkusuko iturritik "Tantanez Tantan" edo "Gantxilaren Eguna" moduan ezagutzen dugun ekitaldia. Lau belaunalditako lau emakumek beteko dute bertan gantxila, eta esku, tantanez tanta, Untzagaraino joango da, euskararen aldeko olatua irudikatuz. Ibilbide osoa betetzeko 500 bat lagun beharko direla kalkulatu dute antolatzaileek, eta beraz, dei egiten diete herritar guztiei, "bihar kalera irten eta Eibarren euskaraz bizi nahi dugula elkarrekin aldarrika dezagun". Antolaketa errazteko, aurten, 12 tartetan banatu da ibilbidea: "Tarte horietan egoteko gonbidapenak banatu ditugu herriko elkarte, ikastetxe, eta bestelako taldeetan. Baina baten batek ez badu gonbidapenik jaso, la-

sai ager daiteke nahi duen tartean. Antolatzaileek ere bertan izango gara eta premia gehien duten tarteetara bidaliko dugu jendea. Helburua ibilbide osoa hasiera hasieratik jendez beteta egotea da, eta aurtentortuko dugulakoan gaude", diote antolaketako arduradunek.

Gantxila hartu eta kalejiran

Behin gantxila hartu eta aldamenekoari eman eta gero, antolatzaileek kalejiran joateko deia egin dute: "Gantxila ondoko lagunari eman ondoren, atzetik etorriko den kalejirarekin bat egitea eskatuko diegu parte-hartzaileei. Pankarta joango da atzeko aldean, eta trikikalariak eta hankapaloek lagunduta denok elkarrekin ailegatuko gara Untzagara, harmailen alde-

ra". Jon Mikel Mugikak idatzi du aurtengo aldarrikapena eta berak irakurriko du. Egun honetarako propio egindako bertsoa abestuz eta Euskaraz bizi nahi dut kantuaren doinuarekin dantza eginez amaituko da ekitaldia.

Erropa urdina eta koadrodun zapia

5. edizio honetan ere antolatzaileek koadrodun zapia eramatea eskatu dute, baina horrez gainera, "errupa urdinez jantzita etortzeko deia egin nahi dugu, olatuaren tantak irudikatuzeko. Edozein urdin-kolorakoa eta edozer izan daiteke: alkandora, txamarra, jertsea, kamiseta...".

Ekitaldia 13:00etan hasiko bada ere, 12:30erako jendea tarteetan egon beharko da.



Koadrodun zapiak gain, urdinez jantzea eskatu dute antolatzaileek.. Artxiboa

UNTZAGARA

Domekara arte Untzagako karpan zabalik egongo dan Memoriaren Plaza ekimen ibiltarixaren harira martitzenian mahaingurua egin zan Eibarko alkate eta alkate izandakuekin. Gogora Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak abian ipiñitako proiektuak memorixa historikua danon artian berreraikitzia billatzen dau eta beste herri batzuetan egindakuari jarraituta gurian egindako solasaldixa helburu hori lortzeko ariketa interesgarrixa izan zan.

Mahai baten bueltan jarritta, gure herriko alkate izandakuak eta gaur egunian alkatia danak euren gogoetak jendiari kontatzeko tartia euki eben egunotan Eibarren daguan erakusketa ibiltarixari lotutako ekitaldixan. **MIKEL LARRAÑAGAK** (1979-1983) ekin zetsan solasaldixari, *"denporan urrutixen atzera egittia"* berari tokatzen jakola esanda. Mahaingurura gerturatutakueri zuzenduta hasi zan berbetan: *"Zuetariko zaharrenak gogoratuko dozuen moduan, 80ko hamarkadan be ETA-ren atentatuak eta hildakuak euki genduzen. 1980ko urrian Elgoibarren Jaime Arrese tiroz hil eben, handik gitxira, azaruaren 6xan Jose Alberto Lisalde polizia nazionala eta Sotero Mazo Figueras pelukerua, Karmen kalian, hórrek be tiroz, automobilian alkarrekin zoiazenian; eta egun gitxiren buruan, azaruaren 17xan guardia zibil bat hil eben, Star fabrikako errelebo-aldaketan; urtia amaittu aurretik, abenduan- Jose Javier Moreno Castro inspektoria hil eben, Bikini kafeterixan"*.

Larrañagaren berbetan *"goguan daukat zelan hilketia gertatu eta bi egunera plenua eguan, eta PNV, PSOE, Euskadiko Ezkerra eta PCE alderdixak gertatutakua kondenatzeko plenuari eustia erabagi genduala, gaitzespena egin eta bertan behera lagatzeko asmuarekin. Izan be, plenorako gai-ordenian puntu bakarra eguan, langabetuen inguruko moziñua. Batzarra hasi bezain laster hasi ziran protestan, alkate 'faxistaren' kontra... Orduan sasoiaren ezker abertzaliak oin baiño askoz indar gehixago zekan jendia mobilizatzeko orduan"*. Hurrengo hilketia *"plenuan geguazela gertatu zan, anaixak deittu zestan horren bari emoten"*.

Egitten ziran manifestaziñuetan Mayor Oreja, Arzallus, Txiki Benegas eta beste batzuk aldamenian izan zittuala azaldu



MEMORIXA HISTORIKUA alkatiekin batera oroitzen

eban: *"Horretako batian, Dos de Mayo kaltetik goiazela, halako batian ETA-ren aldeko oihuak entzun eta kontramantestaziñua topatu genduan aurrez-aurre. Udaltxera aillegau orduko plaza osua hartuta zeken eta gaitzespen testua irakortzen hasi nintzanian, batzuren eta bestien oihuekin ez zan ezer entzuten"*.

Egoeria berezixa zan, batez be hamendik kanpora: *"Ezin eben ulertu holakuak pasatzia Guardia Zibillaren kuartela hamen eukittu, baiña zelan azaldu háleri deitziak gauzak okertu baiño ez zittuala egingo? Gau-*



Mikel Larrañaga (1979-1983)

zak holan, egoerari ahal genduan moduan aurre egittia, beste aukerarik ez jakun gertatzen. Egixa esateko, ez batzuek ez bestiak ez genkigun zer egin bihar genduan, alde horretatik bixak berdin geguazen".

Zeozter pasatzen zan baktotxian tensiñua ikaragarrixa izaten zala be kontau eban, baiña alkate izan zan urtietan Herri Batasunako ziñegotzixak berarekin zelan portau ziran kejarik ez dakala be esan eban, *"beste arlo batzuetan kale egin arren"*. Amaittu aurretik modu berezixan gogoratu nahi izan zittuan 1982. urtian ETak hil zittuan lagun bi, Sebastian Azpiri eta Patxi Zabaleta.

Larrañagaren atzetik alkate izan zan **JESUS MARI AGIRREK** (1983-1987) be bat egin eban azken gogoeta horrekin, *"Zabaleta Armerixako promozio bereko laguna"* zekala gaiñeratuta. Lehelengo plenua ekarri eban gogora Agirrek: *"1983ko maiatzian sartu nintzan udaletxian eta lehelengo gorabeherak ni alkate izendatzeko plenuan bertan hasi ziran. Gogoratzen dot udalbatza barrixa osatzeko plenua bertan behera laga genduala, Bergaratik zetozen aktak bakarrik gazteleraz idatzitta eguazelako"*.



Jesus Mari Agirre (1983-1987)

Lau alderdi eguzen eta iñork ez zekan gehiengorik, "gauzak holan, gure artian ados ipiñi bihar izaten genduan derrigorrez. Argi laga genduan bestien eritzixak errespetatuko genduzela, nahiz eta gurekin ados ez egon, baiña horrekin batera iñoren inposiziño faxistarik ez genduala onartuko be argi laga zan".

Udaletxian "aurretik egon zan lantaldiak hasittako bidia jarraituta" jardun eben. Eta "batek daki zergaittik, alkate izan nintzan bittartian ez zan biolentzia politikuk eragindako heriotzik gertatu, zorionez. Halanda be, hainbat erabagi eta egoeraren aurrian, segiduan etortzen jakuzen 'beste aldekueri' hau edo bestia kontauko zetseta esatera, oso ondo akordatzen naiz zelan erabiltzen zittuen berba hórrek ETA-ko kide esateko sinonimo modura".

Gehiengo minoritarixuan agintzia erabagi eben azkenian: "Kargua hartu eta, nere lehen ekitaldixan, Eibarko udala ordezkatzan Puerto de Santamariara preso eguan semiari bisitan zoiazeneri laguntzia tokau jatan, orduan HB-ko ziñegotzixa zan Iñaki Osoro, Joseba Sarrionaindiaren guraso eta beste batzurekin batera. Horretan ez neban arazorik euki, presuak edozer egin da be famelixakuak holan sufritzia ondo ez daguala begittantzen jata-eta".

Baiña holakuen aurrian berak erakutsitako ulermenak ez eban beti gustoko erantzunik ekarri bueltan: "Oso pleno gogorak bizitzia tokau jakun, udaletxian orduak emon bihar izan genduzen, kalera urten ezinda, lagatzen ez zeskuelako. Eta bixen bittartian euren alderdiko ziñegotzixak kalera jatan eta pote batzuk be hartu zittuela badakit. Eta oin modan ipiñi daben 'scrache' berbia aspaldittik ezagutzen dot nik, birritan etxera bronka billa jatan ziran eta, kontuan izan barik etxian umiak edo zaharrak eguzen ala ez eta, gaiñera, ni udaletxian neguala jakinda. Horretarako eskubiderik ez dago. Ez dot

mendekurik nahi, baiña ahaztu be ezin dittut ahaztu, batez be urtiak pasau arren oindiok iñork ez destalako barkamenik eskatu, hankasartzia izan zala edo horrelakorik esan...".

Alkatetzako urtiak baiño askoz atzerago jatan zan **AURORA BASKARAN** (1987-1993) bere kontakizunian: "Indalezio Prietoren gobiernuak Murtziako baserako, abioiak konpontzeko mutillak eskatu zittuen Eskola Armerixan eta hara jatan gure aitta. Gerora gerria etorri zan eta, aitta sozialistia izanda, famlixakueri batetik bestera ibiltzia tokau jakun. Marsellan lehelengo, handik Toloussera... lau urterekin nere lehen eskolia hangua izan zan, frantsesez. Gurasuak euskaldunak izanda be, nik ez neban euskeraz ikasi hamar urtiak bete nittuan arte. Horregaittik, ointxe euren herrixetatik ihesi doiazen errefuxiatuen irudixak ikusten dittudanian asko su-



Aurora Baskaran (1987-1993)

fritzen dot, beste sasoi batian geu be euren modura errefuxiatuak izan giñala gogora ekartzen deste eta".

Etxera bueltan topau eben girua, frankismua tartian, nahiko leukienetik oso urrutitan eguan. Etxe barruan politikiak garrantzi haundixa izanda be, baiña, berak politikan jarduteko bokaziñorik ez zekala azaldu eban: "1987xan PSOE-tik alkategai izateko proposamenarekin etorri jatazenian ezetz esan netsen, baiña sozialista zaharrak bigarrenez eskatzera etorri jatazen, mesedez baietz esateko, eta holan onartu neban zerrrendaburu izateko proposamena".

Aittarekin etxian ikasittakuaz aparte, politikaz ezer ez zekixala aitortu eban: "Alkatetzan egotia oso gogorra egin jatan, baiña era berian oso ona izan zala esan biharra dakat, asko ikasi neban eta". Lehen aittatutako Azpiri eta Zabaletaren heriotzak, Guardia Zibillaren kuarteleko lehen bonba, foball zelaixan eguan polizia bat hiltzia...

iñoren gustokuak ez diran gertakarixeri aurre egittia be tokau jakon, "eta ez genduan pleno lasairik euki, den-denetan iskanbillaren bat eragitten eben".

Azken gogoeta modura memorixa historikuarekin berandu akordatzen hasi garala pentsatzen dau: "Jende askok heriotzak eta bestelakuak gertatu ziranian sufridu eban eta gero be sufritzen segidu bihar izan dau, iñork kasorik egin ez destelako, ez diralako eurekin akordau".

Hamabost urte alkate izan zan **IÑAKI ARRIOLAK** (1993-2008) "urtietan etaparik luziena" laburbildu bihar izan eban: "Mugarri batzuk egon zirala pentsatzen dot: batetik Lizarrako su-etenaren aurreko urtiak dagoz, horren osteko urtiak beste epe bat osatuko leukie, 2002ko partiduen legiak beste aro bateri paso emon zetsan... Baiña zalantza barik aparteko garrantzixa euki eban gertakarixa Miguel Angel Blancoren hilketia izan zan. Jende normalak ETA-ri beldurra galdu zetsaneko momentua horrek markau eban, 'nahikua da' esan eta Ermuan sortutako efektua herririk herri zabaltzen jatan zan, ordura arte sekula ikusi bariko indarrarekin, gaiñera. Benetan diñot hori ikustian ETA-rekin amaittuko genduala pentsatu nebala".

Halanda be, tensiño haundiko sasoi izan zan: "Gesto por la Paz-ek atentatu bakotxaren ostian alkarrataratzia egitten eban Untzagan eta euren parian beste pankarta batekin kontramanifestaziñua egitteko lotsarik ez eben eukitzen, halako batian egoeriak bueltia emon eta Gesto por la Paz-en aldian gero eta jende gehixago batzen hasi eta beste aldekuak gixiengua izatera pasau ziran arte".

Beste herri batzuetako egoeriarekin alderatuz gero, Eibarren bizi izandakua beste toki askotan baiño hobia izan dala pentsatzen dau: "Halanda be, ezin geinke ahaztu justu-justuan librau garala, Eiba-



Iñaki Arriola (1993-2008)

rren ziñegotzi biren kontrako atentauak sailhesteko suertia euki dogu, baiña Jose Luis Valles eta Benjamin Atutxa hiltzeko euren asmuak aurrera egiñez gero oso bestelako egoeria eukiko genduala argi dago". Amaitzeko, "bakia lortzeko bidian, partiduen legiak berebiziko garrantziza, oiñarri-oiñarrizkua izan dala oso argi dakat eta hori esanda lasai asko geratzen naiz" gaiñeratu eban.

Gaur egungo alkatiak, MIGUEL DE LOS TOYOSEK (2008-) itxi eban mahai-ingurua: "Nere bizipenetako asko alkate modura baiña ziñegotzi modura bizi izandakua dira". Esan ebanez, bizittakuen artian bereziki gogorra egin jakon egoeria, beste askoren kasuan moduan, eskolta ipintziarekin batera hasittakua izan zan: "1994an politikan sartzeko proposamena egin zestenian gutariko iñork ez leuke pentsatuko ziñegotzi izatiagaittik bere bitzta arriskuan



Miguel de los Toyos (2008-)



Gure herrixan alkate izandakuekin mahaingurua egin zan, beste herri batzuetakuari jarraituta.

Domekara arte egongo da erakusketia ikusteko aukeria egun osuan, 10:00etatik 20:00etara (15:00etatik 16:00etara izan ezik). Karpa barruan oiñ arte jasotako bizipenak ikusi leikez eta, nahi dabenak, bere oroitzapenen lekukotza jasotzeko aukeria be badaka

egongo zanik, baiña halako batian eziñezkua zan hori errealdade billakatu zan. Bizitza zer dan, 2001eko otsaillian ipiñi zesten eskoltia eta handik hillebetera nere lehen semia jaixo zan, pentsau!".

Egoera normal batian sekula ulertu edo onartuko ez genduazan jokabidiak gero eta "naturalago" bizitzeko "erreztasunarekin" be harrittu zala kontau eban: "Hamar urtian nere bizitzako parte garrantzitsu bat kendu zesten, baiña hasieran eskol-tarekin toki guztietara lagunduta juatia arrarotzat jo arren, denporiakin norbera-

ren inguruan ixa normaltzat hartzen hasten dala ikustiak...".

Edozelan be, ilusiñuarekin begiratzen detsa etorkizunari: "Zabaldu dan aukeria aprobetxatzen jakin bihar dogu, ezin geinke alperrik galdu. Nik behintzat argi daukat atzera bueltarik ez daguala, bidia luzia da, baiña segurua izateko sosiguz ibilli bihar bada ba sosiguz juan biharko gara". Eta azken gogoetan Coral Rodriguez Fouzen osaba eta haren lagunekin akordau nahi izan eban, "auzi horrek oindiok zabalik segitzen dau eta".

ABBIEWHITE ENGLISH SCHOOL

BISTA EDER 7. BEHEA
 abbiewhiteenglish@gmail.com 605 693 147
LASTER ZABALIK! MATRIKULATU ZAITEZ!

OPARITU INGELESA ZEURE NEURRIRA!

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	ELGOIBAR Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
---	---

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
 ☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Sukaina Benslaiman Kraichi (Gizarte Langintzako ikaslea):

“Janzkerak ate asko ixten dizkit”

Sukaina Benslaiman Kraichi Eibarren jaio zen orain dela 21 urte. Aita Marokotik lan bila etorri zen lehenengo, eta bere ama pixkat geroago, 90eko hamarkadan. Sukaina eta bere 5 anai-arrebak, beraz, Eibarren jaio ziren eta etorkinen bigarren belaunaldikoak dira. Urkizu ikastetxean, Itzion eta I. Zuloaga Institutuan egin zituen ikasketak, eta gaur egun Gizarte Langintza ikasten dihardu Gasteizen. Horretaz gain, barixakuetan ...eta kitto! aldizkaria banatzen du. Etxean arabieraz egiten dute berba eta, euskararekin harremanetan jarraitzeko, Gizarte Langintzako ikasketak euskaraz egitea erabaki zuen Sukainak.



- laz etorkinen bigarren belaunaldiei buruz egin ziren jardunaldietan parte hartu zenuen. Zein izan zen ondorio nagusia?

Pertsona desberdinok esperientzia pertsonal desberdinak kontatu genituen. Ondorioetako bat izan zen, gu etorkinen bigarren belaunaldikoak izan arren, hau da, hemen jaiok izan arren, bertakotzat ez gaituztela aitortzen. Beti ikusten gaituzte etorkin gisa, naiz eta gu etorkinak ez izan.

- Beraz, hemen bizi eta hezitakoa izan arren, kanpotartzat hartzen zaituzte.

Bai. Kontua da erlijioa eta kultura nahasten dituela jendeak, eta askok ez dute uste ez ikasten dudunik, ezta euskarak dakidanik ere... Pentsatzen dute ezkondata nagoela jada, ez dakit zenbat umerekin... Aurreiritzi asko daude arlo horretan. Eta emakumeen kasuan gehiago gertatzen dela iruditzen zait. Ni musulmana izanda, janzeran ikusten zait, eta honek oztopo asko ekartzen dizkit, lana bilatzeko momentuan, esaterako. Janzkerak ate asko ixten dizkit.

- Eibarko eta Gasteizko egunerokotasunean igartzen duzu hau?

Gasteizen gehiago. Eibarren, azken

batean, eramangarriagoa da, ez dago hain pilpilean, eta jendeak ezagutzen nau. Gasteiz hiri handiagoa izanda, desberdina da; Marokotekin gertatu zena, esaterako...

- Zer egin beharko litzateke horri buelta emateko?

Egunero egin behar den gauza bat da, ez integratiorako jardunaldi eta etorkinen ekitaldi berezietan soilik. Zerbait normala bezala hartu beharko litzateke. Ez da pentsatu behar integrazioa etorkinen eskuetan dagoela soilik. Denon artean ematen den prozesua da; zer egiten dugu bertatik etorkinen integrazioan laguntzeko? Hori da galdetu behar duguna. Beste alde batetik, kultur aniztasuneko ekitaldia egiten denean, etorkinen kultura soilik erakusten da. Baina aniztasunaz ari bagara, zergatik ez dugu bertakoa ere erakusten?

- Eta hori nola alda daiteke?

Txikitatik ikasi behar den zerbait da. Umeek ez dute desberdintasunik ikusten etorkinen seme-alaben eta bertakoen umeen artean, gurasoengandik ikasten dute banaketa hau. Eta hor dago arazo nagusia. Txikitatik balira koadrilak anitzak, ez legoke horrelako arazorik izango.



**Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak**

**Khôl
Estilistak**

Estaziño, 4 943 254776

667 54 89 16 (Ritxar)

kolorlan@hotmail.com



KOLORLAN
P I N T U R A K

Biodibertsitatearen aldeko udalbatza berezia

Eskolako Agenda 21 egitasmoa landu duten Amaña, Arrateko Andra Mari, Urkizu, San Andres, J. A. Mogel, Itzio BHI, La Salle Azitain, La Salle Isasi eta Mogel Isasiko ikasleek udalbatzara egin zuten aurreko asteko eguenean udaletxean. Urtero egin ohi duten pleno berezian herriko bederatzikostetxe horietako 80 ikasleek hartu zuten parte. Aurten biodibertsitatearen gaia landu dute ikasturtean zehar, udalaren, Ingurugelaren eta Debegesaren laguntzarekin. Proiektuko arduradunek azal dutakoaren arabera, "aipatutako gaia lantzeko asmoz ikasleek egin dituzten ekintzen artean aipagarrienak Eibarko parkeen eta berdeguneen azterketa, landare eta faunaren dauden espezie inbaditzaileen inguruko behaketa eta Ego errekan ekosistemaren inguruko ikerketa lirateke, besteak beste".

Gaur egungo egoeraren diagnostikoa egin ondoren, ikasleek euren lanaren ondorioak azaldu zituzten udalbatzarrean eta, horrekin batera, Eibarren biodibertsitatea sustatzeko proposamenak ezagutzera eman zituzten plenoan parte hartzen egon ziren zinegotzien aurrean. Horrez gain, egitasmoaren harira ikasleek



Ikasturtean zehar landutako berri eman eta hainbat proposamen plazaratu zituzten ikasleek.

euren elikatzeko ohiturak hobetzeko eta birziklapenaren alde egiteko hainbat konpromiso hartu dituzte.

Ikasleen proposamenak

Ikasleek udalari egindako proposamenen artean aipagarrienak hauek lirateke: parkeetan berdegune gehiago prestatzea eta horiek diseinatzeko orduan hemengo espeziei lehentasuna ematea; herriko zuhaitz esanguratsuenen inbentarioa egi-

tea; Ego errekan eta bere ibaiadarretan garbiketa kanpaina egitea eta biodibertsitatea sustatzea; eta espezie inbaditzaileak, batez ere Asiako listorrak eta landare inbaditzaileak desagertaraztea. Udal ordezkariak proposamen horiek entzun eta kontuan hartuko dituztela erantzun zieten ikasleei. Horrekin batera, horrelako bileren garrantzia azpimarratu zuten eta eskolek Agenda 21ean egindako lana eta parte-hartzea eskertu zuten.



Ikasturteari agur bertsotan

Bertsozale Elkartearen gidaritzapean, eta Udalak eta parte hartu nahi izan duten ikastetxeek finantzaturik, Ahozkotasuna eta Bertsozaintza egitasmoa lantzen jardun duten ikasleek hiru emanaldi eskaini dituzte Coliseoan, "egitasmoan parte hartu duten taldeak asko ugaritu direlako". Astelehenean Iturburuko, La Salleko eta Amañako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen txanda izan zen. Eta eguaztenean Arrateko Andra Mari, Urkizu, Aldatze eta San Andres ikastetxeetako ikasleek jardun zuten bertsotan.

Egitasmoaren arduradunen berbetan hauek dira helburu nagusiak: "Ahozko adierazpidea hobetzea, komunikazio-estrategia eraginkorrak baliaraztea, hizkuntza aldetiko sormena bultzatzea, jendaurrean berba egiteko oztopoak gainditzea, ideiak ordenatzen laguntzea eta komunikatzaile onak izan daitezen hezitzea". Egitasmoa gure herrian martxan jarri den 9. ikasturtea izan da aurtengoa eta, urteroko martxari jarraituta, oraingoan ere ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko asmoz antolatu dituzte bertso-jaialdiak, kurtsuari agur esateko ordua ailegatu aurretik.

CARMEN ARANA ARANA

1. URTEURRENA (2015-V-18)

ZURE IRRIBARRE ETA SAMURTASUNA
BETIRAKO IZANGO DIRA
GURE ARTEAN. **ETXEKOEK**



Aisialdia bizitzako arlo inportantea da, eta are gehiago helburu hezitzaileekin planteatzen denean. 25 urteko ibilbidea eta gero, Astixa Aisialdi Taldea oso ezaguna da Eibarren, ume eta gazteekin egiten duen lanagatik. Modu batean ala bestean, adin jakin batetik beherako eibartar gehienak pasatu gara Astixatik: haur, gazte, begirale edota guraso moduan, ia denok daukagu Astixari buruz zerbait esateko. Oporrak Afariketari, Gaztetan akanpada, Udari Jolasean, Guay parkea, zapatuko tailerrak, Neguko afariketari, Ludoteka, Gaztelekua, Astelena parkea... gauza mordo egin dituzte. Azken aldiari aldaketak izan dira lantaldean. Hasierako 3 sortzaileetatik batek jarraitzen du aurrera eta beste hiru pertsona sartu dira. Eurekin elkartu gara 25 urte hauetako errebasoa egiteko eta gaur egungo Astixari buruz berba egiteko.

ASTIXA

25 urteko ibilbidea eta gero, aurpegi berriekin dator aisialdi taldea



Astixako lantaldea:
Enaitz Alberdi,
Iraider Garcia,
Asun Gandiaga eta
Alaitz Andonegi.

25 urte pasa dira **Marisa Lapeyra**, **Asun Gandiaga** eta **Maribel Garate** Astixa sortzea erabaki zutenetik. Asun Gandiaga da une horretan aurrera jarraitzen duen bakarra eta hasierako urteei buruz galdetu diogu: *"Martxoaren 8an bete dugu 25. urteurrena. 1991n sortu genuen Astixa Aisialdi Taldea Maribel Garatek, Marisa Lapeyrak eta nik, aisialdiko begiraleen ikastaroa eta zuzendariena egin ondoren. Momentu horretan Eibarren ez zegoen aisialdi talderik eta informazioa jasotzen eta egitura juridikoa ematen hasi ginen. Elkartea sortu eta urte horretan sinatu genuen Eibarko Udalarekin lehenengo kontratua. Marisak eta nik magisteritza-ikasketak genituen eta Maribel administrazioaz arduratzen zen. Lehenengo egoitza Calbeton kalean zegoen, Oriotarra taberna zegoen eraikinean. 2008an Maribelek utzi egin zuen eta aurten Marisa Lapeyrak, hezkuntzara pasatzeko"*.

Orain dela 25 urte aurkeztu ziren lehenengo Udarak konbokatzen dituen lehiaketa publikoetara eta oraindik gauza bera egiten jarraitzen dute. Eibarko Udala izan da euren bezero nagusia, baina ez bakarra, eta makina bat gauza desberdin egin dituzte: *"Ilustratzaileen erakusketak itinerante bat Gipuzkoan zehar, liburutegi-tailerra, kontsumo-tailerrak Ermuko ikastetxe guztietan... Gaztetxoekin ere urte askotan ikas-bidaia egiten egon ginen ere, horietan begirale zerbitzua ematen genuen. Udaleku itxiak ere eskaini izan ditugu Aubixan, Elgoibarko ikasto-*

lak antolatuta. Debegekin ere elkarlanean gauzak egin ditugu eta Eibarko jai-batzordeekin ere auzoetako jaietan umeendako jolasak antolatu izan ditugu...", azaldu digu Asunek. Baina beste sektoreetan bezala, euren esparruan ere krisialdia igarri da eta urtero ziztuzten hainbat programa bertan behera gelditu dira 2009tik aurrera. Asun-en esanetan, *"gure bezero nagusia Eibarko Udala izan da, zalantzarik gabe. Inguruko herrietako udalekin ere puntualki lanak egin izan ditugu. Beste proiektu batzuk atera direnean sarritan ez gara ausartu hor sartzen, errespetatu izan dugu beste jende bat hor makina bat urtetan lanean egon dela"*.

Lantalde berria

Urte hauetako eboluzioa nolakoa izan den galdetzean, aldaketak gehienbat lan egiteko moduan izan direla argi daukate. *"Orain ordenadoreen bitartez lan egiten da eta teknologia berriek barneko lana arindu egin dute. Bestalde, hasieran gauza berria zen eta jendea parte hartzen zihoan. Orain, umeak izandakoak monitore edo guraso bezala ditugu. Horrek barruan ikutzen zaitu. Jende asko pasatu da hemendik, eta zentzu horretan hasieratik genuen erronka bete egin da: hasieran ume moduan, gero gazte moduan eta azkenik begirale moduan jardutea. Oporrak Afariketari klasiko bat da Eibarren. Guraso eta umeak azkenean destino berdinarik izan dituzte, Eibarren eta inguruan ditugun baliabide berdinarik erabiltzen ditugu eta, nahiz eta*

jarduerak aldatuz joan. Honek esaten digu txarto ez gabiltzala, oraindik funtzionatzen duela, jendeak jarraitzen du izena ematen. Gurasoei galdetegia ematen diegu eta gehienak konforme daude egiten denarekin eta zoriondu egiten gaituzte umeek oso ondo pasatzen dutelako. Aurtengo udari 5-12 urte bitarteko 700 ume inguru ibiliko dira Oporrak Afariketari programan. Begiraleak, berriz, 50 inguru izango dira".

Astixako lantalde berria hiru kide berri daude; Iraider, Alaitz eta Enaitz. Orain Astixaren "lehenengo filara" pasatu dira, baina oso ondo ezagutzen dute taldearen funtzionamendua. Hirurak dira hezitzaileak eta urte asko daramatzate Astixan begirale moduan behar. Oso pozik daude hartu duten erabakiarekin: *"gu ez gara Otik hasi, proiektu honetan sartzeko guretzako oso erabakiorra izan da esperientzia eta ibilbide luzea daukan pertsona bat (Asun) bertan egotea. 25 urte eta gero Astixak ibilbide bat dauka, izen bat dauka Eibarren eta proiektu honetan sartzeko segurtasuna eman digu hiruroi"*. Asun Gandiaga ere asko poztu da aldaketa egin dutenean: *"ez dira aurpegi berriak, gurekin aspalditik daudelako lanean, baina beste gazetetasun bat eman diote Astixari. Askok eskertu dute euren inplikazioa, urte asko daramatzate gurekin lanean eta oso ondo ezagutzen dute funtzionamendua eta azken proiektuetan hor egon dira, esate baterako, ludoteka denon artean sortutako proiektu bat izan da"*.

etxe apainketa



gehigarria

Nota hasi zure etxea diseinatzen

Hemen dituzu zure etxea diseinatzen hasteko ideia batzuk:

Hasi zure kolore eskemarekin

Lehen pausoa kolore paleta bat osatzea da. Koloreak oso garrantzitsuak dira, giroa sortzen dutelako. Gomendagarria hiru kolore erabiltzea da: lehen kolorea paretentzat, bigarrena altzari handientzat (sofa, aulkiak...) eta hirugarrena detaile eta osagarrietarako (loreak, kuxinak...).

Objetu bereziak nabarmendu

Objetu eta altzari bereziak, nortasun handia dutenak, gelaren erdigunea bihurtu. Objeten bat asko gustatzen bazaizu, erakutsi.

Sofak kontu handiz aukeratu

Ez izan sofa batean dirua inbertitzeko beldurrik. Denbora asko pasako duzu egongelan eta sofan eserita; garrantzitsuena eroso eta bistarako polita izatea da. Horrelakorik aurkitzen baduzu, ez galdu erosteko aukera.



Zabaia margotu

Sukaldeak ilunak izan daitezke dauden altzari eta elektrodomestiko kopuruarengatik. Argitasuna emateko margotu zabaia paretak baino kolore argiago batez.

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

Bidebarrieta, 28 - behea Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



**ARROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**



proiektuak
ERREFORMAK
dekorazioa
diseinua
VINTAGE
+ lifestyle



www.atelier-11.es * **atelier11**
Julian Etxeberria 11 * tlf 688 681 604



attrezzo

PROIEKTUAK BERRIKUNTZAK DEKORAZIOA

Ego gain, 15 Tel. 943 127 196 attrezzodecoracion@gmail.com

EPOCA

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK
ALTZARIAK - DEKORAZIOA

"Zuk nahi duzun etxea egiten lagunduko dizugu"



San Juan, 5 EIBAR Tel. 943 700 216
Madalenoste, 7 DURANGO Tel. 946 472 012
www.epocasukaldeak.com 



Aldaketa txikiekin zure etxea berdiseinatu

Pertsonalizatu

Ladreluaren boomarekin, pisuak hobeto bersaltzeko kolore eta altzari neutralen erabilera zabaldu zen. Orain, osterak, norberak bere estiloa eta identitatearekin dekoratzea gomendatzen da.

Leihoak apaindu

Leihoaren markoak koadroenak bezain beste zaindu behar dira. Gortinak (luzeak badira hobeto) eta pertsianak konbinatzeak gelari elegantzia ematen dio.

Horma bakarra bereizi

Egongelako horma bat besteengandik desberdina izatea gomendatzen da, orokorrean sofaren atzeko pareta, deskantsatzen bazaude molestatu ez dezan.

Alfonbrak erabili

Etxea goxoagoa egiteko alfonbrak erabili. Nahi denean aldatu daitezte.



Ontziteria nahastu

Ontziteria konbinatzea gehiegi baloratzen da, eta oso garestia izan daiteke. Gainera, desberdinak erabiltzean inork gehiago izango ez duen ontziera izango duzu.

Kuxinak erabili

Bi kuxin erabiltzeak sofa gusto gabe utz dezake. Bi pare erabilita, eta kolore, testura eta patroiak kontrastatzeak bizitasuna emango dio egongelari.



Txonta, 30 - 1.a eta behea
Tel. 943 12 13 67
Faxa. 943 12 01 50
www.ulmar.net
info@ulmar.net

ERAKUSKETA:
Urkizu, 26 (EIBAR)
Tel 943 12 74 01

**Eraikuntza metalikoak
Aluminiozko eta PVCko Aroztegia**



Vegasa MUEBLES DE COCINA Y BAÑO **FORMA** COCINAS
banatzailea



IFAR
sukaldeak

Ifar kale, 6


Tel./Faxa:
943 206 339

info@ifarsukaldeak.com

www.ifarsukaldeak.com

Nagore Goikoetxea
INTERIORISTA
KOLEGIATU ZKIA: 580BI

Proiektuak
Erreformak
Dekorazioa



mokkainteriorismoa.com

mokka

Bidebarrieta 24.

1964
ESTUDIO

proiektuak | obrak | interiorismoa | vintage



jardiñeta kalea, 14 eibar / tf. 656756485 /
1964.virginia@gmail.com / www.estudio1964.com



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

EKAIN

APALATEGI AUZOA, 2

Munduko KOLOREA



Tel. 943 821 325
Faxa. 943 821 326
ekain@ekain2000.com
www.pinturasekain.com

Pintura eta Dekorazioa
GRUPORRALMM, S.L.

-  **PINTURA**
-  **ZORUAK**
-  **PAPER PINTATUAK**
-  **ALFONBRAK**
-  **IZARAK ETA EDREDOIAK**
-  **BURDINDEGIA**



gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria
gehigarria etxe apainketa
etxe apainketa gehigarria



nuvan
PROIEKTU ETA ALTZARIAK

Egogain, 1
20600 Eibar 943 03 36 72

SANTOS
sukaldeak

proiektuak, erreformak, sukaldeak, altzariak



desvan

San Agustin, 2 20600 Eibar
943203762

<https://www.facebook.com/desvandecoracioneibar/>
www.desvan.net





logos°

Sukalde Denda Berria

- EIBAR -



%20^{ko} deskontua*

ZURE SUKALDEKO ALTZARIETAN UZTAILAREN 31^{RA} ARTE

* deskontua sukaldeko altzarietan aplikatuko da solik, muntala, etxetresna elektrikoak, entzimerak eta bestelakoak kanpo gelditzen dira. Eskaintza 2016ko uztailaren 31ra artekoa izango da.



www.kuuskaldekak.eus | SAN JUAN KALEA 8A, BA3, EIBAR | M1_660 595 555 M2_688 638 883

- sukaldeak, erreformak, dekorazioa, proiektuak -

FRAN URKIDI
— BARNE DISEINUA —

BIDEBARRIETA 27, EIBAR
943 200 151 · 660 595 555

ERREFORMAK ETA DEKORAZIOA

www.franurkidi.com

Eman zure komunari sparen itxura

Lore-diseinuak erabili paretetan, gortinetan, jarroietan, dutxako gortina eta toaletan... Etxe guztian zehar ez ezik, ahalegindu hoztazun itxura ematen komunari: altzari sinpleak erabili, baita kolore hotzak baina argiak ere. Berdea eta urdina dira aproposenak.

Bestalde, kontraste handiko komunek ere spa itxura izan dezakete, betiere kontrastea egiten duena gauza bakarra delarik. Hau da, horma bat irudi biziez jazten bada, altzariak, toailak, gortinak eta abar kolore neutralekoak izan beharko dira. Komunak asko saturatu ezker, bainu edo dutxa lasai bat hartu nahi bada, erlaxatzeko zailtasunak emango ditu.

Hankak dituzten bainuak, posible izanez gero eta tokia izanez gero, oso egokiak dira. Argi naturala izateko aukera badago, gehitu leiho handiak, ahalik eta argi gehien sartzeko.



Egurrezko akaberak erabili. Egurrak zen atmosfera sortu dezake.

Eta azkenik, detaile eta dekorazio nautikoa erabiltzea ere gomendagarria da, toaletan, alfombretan, eta abar.



 **IZARRAITZ**
LEIHOAK-ERREFORMAK



Dutxa berria

**Leihoak - Pertsianak - Bainuak
Toldoak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Fatxadak eta peoren konponketa...**

Bidebarrieta, 48
Tel. 943 25 60 26

EIBAR (SONIA)
ventas-izarraitz.eibar@hotmail.com

Bidebarrieta 12, eibar - tf. 605773720



**mikel
elorza**
col 256Bl

proiektuak - obrak - altzariak neurritan interiorismoa

San Juan, 16 - ac
943 204 259
www.casamaniaculture.com

Gozatu zure etxe
eta proiektu berriekin!

CASAMANIA



**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK

ERREFORMAK



LOKALAK

ETXEBIZITZAK

Errosario, 15 ELGOIBAR
Tel. 605 71 31 68 / 943 74 40 19

www.irazabal.net



irazabal

Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

KONFIANTZAZko enpresa
KALITATEZko lanak
bezeroarekiko **ARRETAZ** eginda



Eraikuntza

Erreformat

Igeltseritza



**IGELTSERITZA LANAK ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA**



Zure ingurunea (etxea, bulegoa,
tailerra...) aldatu nahi baduzu,
GUK LAGUNDUKO DIZUGU... gustorago
bizitzen eta etorkizun hobez gozaten.

IRAZABAL-EKIN ELKARLANEAN JARDUNEZ
GERO, HARRO ESAN AHAL IZANGO DUZU:

“Hau da nik nahi nuena”

2016ko tendentziak

Matea

Joan den urtean kolore eta material metalikoak erabiltzen ziren. Aurten, ostera, kolore mateek hartu dute indarra. Metal oxidatuak eta mate koloreak dira hedatuena.



Makramea eta crocheta

70. hamarkadan hain zabalduak izan ziren moda hauek bueltan dira. Kontuz, ordea, larregi erabiltzearekin.



Zaharra berriarekin nahastea

Gela bat dekoratzerakoan formula bati jarraitzea bukatu da; jada ez du denak konbinatu behar. Garaiko edo antzinako objektuak modernoak direnekin nahastu. Horrela, gela urteetan zehar aldatzen joan dela emango du, historia duela, hain zuzen.



Berogailuak margotzea

Berogailuak askotan zatarrak izaten dira, eta oso ikusgai egoten dira. Horregatik, margotu gelak duen kolore berdinarekin, eta disimulatuta geratuko da, paretaren

parte balitz moduan. Baina kontuz! Ez erabili edozein margo; erosi baino lehen galdetu pintura dendan edo burdindegian zer material erabili ahal den.

Txaltxa Zelai, 1



Lagunak
erreformak

Tf. 943 702 612 Mobila. 625 185 122
lerreformak@gmail.com

- Fatxadak eta Teilatuak
- Iturgintza / Gasa
- Igeltseritza
- Gremioen Koordinazioa



BENICOBA




cenor

etxetresna elektrikoak
Desberdinak Gara

ETXEKO TRESNAK

SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Gisasola, 14
Tfnoa. 943 20 39 02
benicoba@terra.com



neure
dekorazioa

t. etxebarria, 21
tel. 943 700 818
neuredeco@telefonica.net



M A R S I

bidebarrieta 1. 943201626 - 639403457



**FATXADA
ETA TEILATUEN
BIRGAIKUNTZA
BARNE-ERREFORMAK
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**



ERAIEDER, S.L.

Tiburzio Anitua, 18 - Tfnoa. 943 200 453 - info@eraieder.es - www.eraieder.es

jose antonio artamendiren DOHAINTZA

Jose Antonio Artamendi Mugerzak -2014ko otsailaren 23an hil zen- notarioaren aurrean egin zuen testamentua, eta bertan hainbat legatu agindu zituen; haien artean Eibarko Udal Liburutegiari bere etxean zuen liburu- eta dokumentu-funtsa. 1933an Eibarren jaiotako filosofoa Merleau-Ponty-ren diszipulua izan zen Collège de France-n eta baita Xavier Zubirirena ere. Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen eta apaiz ordenatu zuten 1958an. Bere lanen artean honakoak aipatu ditzakegu: *Autor Técnica y civilización* (1973), *Notas para un proyecto cultural vasco* (1982), *Jalones para una posible recuperación de una cultura vasca* (1982) eta *Hablando con Xabier Zubiri* (2005). Donostiako Seminarioan eta Deustoko Unibertsitatean irakaslea izan zen hainbat disziplinan: Antropologia filosofikoa, Filosofiaren historia, Lengoaiaren filosofia eta Kultura- eta Gizarte-Antropologia; ho-

riez gain, Filosofia eta Letra Fakultatean katedratikoa izan zen eta Donostiako kanpuseko dekanoa.

Berarena izandako funtsa bibliografikoa nabaritzen da jasotako eta landutako ezagutza guztia. Hil honetan amaitu dugu lehen faseko lan teknikoa: 1.042 liburu katalogatu, sailkatu eta erregistratu dira Eibarko liburutegiko funtsaren atal bat izateko. Horien artean, filosofia eta teologia arloak gustuko duten eibartarrentzat hainbat eta hainbat liburu daude aztertze eta irakurtzeko.

Zein motatako liburuak diren ideia egiteko, helbide honetan kontsultatu ahal duzue orain arte egin ahal izan dugun katalogoa. Espero dugu lanaren bigarren fase baterako pertsonala lortzea dohaintza osaren funtsa bibliografikoa ezagutzera eman ahal izateko. Gure esker onak Jose Antonio Artamendiren familiari jasotako legatuagatik. Goian bego!

Liburuak



eva alberdi
—UDAL LIBURUTEGIA—



Musika

Ultra Fucking Trash

- **Lurreko Kontrola Tom Komandanteari:** Ze... gustora zabilta espazioa estalgabezten!!!! Buelatu beharko zenuke, bestela bertan bueltaka geratuko zara.

- **Tom Komandantea Lurreko Kontrolari:** Hemengoa nire paradisu bakartia da. Hor behean dagoen egoerarekin ez da batera erakargarria izultzea. Hemen bezalako argirik ez dut inon topatuko. Bakardadea ere beste modu batean sentitzen da.

- **Komandantea...** Azken deia dela jakin behar duzu. Ordubeta barru gure posizioa Orion-en galaxiara pasatuko da eta, hortik aurrera, zure etorkizuna izarren eskuetan izango da. Betikotasuna, espazioko sakontasuna, denbora, bakardadea...

- Bai, Lurreko Kontrola... Utzi nazazue, mesedez. Ez dakit ziur zein den nere etorkizuna, baina argi daukat ez duela merezi mundu madarikatu horretara bueltatzea. Bakarik eman besardaka handi bat nire txakur maiteari, eta kontu korrontean geratzen zaidan diruarekin Ez-Dok eta Scorpioko rockeroei garagardo fresko batera gonbidatu.

- **Azken abisua, Tom Komandantea...** Hemen denok ongi gorri beroa emango dizugu. Jendearentzat heroia zara. Zure auzoan, Udaletxean, Diputazioan... leku guztietan ikaragarritzko harrerak egingo dizkizute. Lehendakariak betirako erreserbatu dizu Opera abonoa eta San Mamesen VIP jarlekua janaria, alkoholun edaria eta erretzeko baimenarekin. Gainera, hurrengo hauteskundeetarako zerrendetan zuk nahi duzun lekuan azaldu dezakezula esan dit.

- Eskerrik asko, Lurreko Kontrola. Lehendakariari esaiozue hemengo giroarekin pare egiten duen ezer ez dagoela. Nire lekutik Mikel Laboa eta Imanol Larzabal bertotan entzuten ditut. Aldameneko satelitean Kristonfest jaialdia ari dira prestatzen...

- **Hemen bukatzen da nire lana, Tom Komandantea. Benetan pozten naiz ados geratzen bazara. Ondo pasa.**

- Bai, Lurreko Kontrola, hala da. Pasiatzen hasi naiz... Grabitate barik, argi zoragarria, ez dago mugarik, libre... Lemmyrekin garagardoak edatera noa, ea ze istorio kontatzen dizkidan... Hemen dabilta Josu eta Jualma Eskorbuto ozenki oihukatzen... Enrique Urquijo eta Antonio Vega beti elkarrekin, gitarraz amodio kantekin... Paul Gray eta Josean Salado erritmoa jartzen leku guztietan... Bon Scott, Joey Ramone eta Mahoma RIP adarra jotzen... **Hau bai betirako infernua... paradisu ezinhobea.**



iñaki
zubillaga

VERTIGO ROCK 2016 Ermuan

Maiatzean hasten da rock jaialdi handien denboraldia. Albacete-ko Viñarock izaten da lehen, eta Ermuko Vértigo Rock bigarrena,

zapatu honetan. Txikia bai, baina 10 urte betetzen du bertako eta bogan dagoen musika eskaintzen. Antolatzailleek urtean zehar oso fin egiten dute lan handik eta hemendik laguntzak lortzeko, jendeak primerako musika jardunaldiarekin doan gozatzeko. Iaz bezala, proposamen bereziena trash metala izango da, **Crisix** katalanekin karte-leku gorenean: "From blue to black" aurtengo disko berria aurkeztuko dute. **Cobra** euskaldunak disko berria dakarte: "Riffyard". **Insohmnio**, **Issuna**, **Nemon** eta **Alboka** Musika Eskola Ermuko musikaren eskaintza izango dira jaialdian. Horrez gain, hardcoreak ere bere lekua izango du, **Escuela de Odio** asturiarren eta **A.D.** taldearen partetik. Azkenik **Hora 13** taldeak metal musika eskainiko digu jaialdiko kartela ixteko.

Ordutegia: Alboka Musika Eskola (14:50), Hora 13 (16:00), Nemon (17:00), A.D. (18:00), Issuna (19:00), Escuela de Odio (20:00), Insohmnio (22:00), Cobra (23:00) eta Crisix (00:40). Eta, poteorako, Motxila Band elektrotzarangak 20:45etik aurrera herria astinduko du.



Irlanda, Italia, Eibar eta Ermuko 5 musikarik bat egin dute musika zelta egiten duen Euskelga taldean. Taldearen izenaren atzean sustrai gaelikoak eta euskaldunak daude. Bi urte inguru pasa dira taldea sortzen hasi zirenetik. Ez dira hasiberriak, musikari bakoitzak soinu beteriko motxila darama soinean eta hori igarri egiten da. Taldeko bi kide, Marta Zubiaurre eta Iñaki Ortega, eibartarrak dira eta Walter Tuzzeo gure artean bizi den italiar musikari eta soinu-teknikaria da. Marta Zubiaurre biolinistarekin berba egiteko aukera izan dugu.



Marta Zubiaurre eibartarra,
Euskelga taldeko biolinista.



Euskelga taldea Zallan
emandako kontzertuan.

MARTA ZUBIAURRE, Euskelga musika taldekoa: "Musika eta biolina nire bizitzan konstante bat dira"

- Zeintzuk osatzen duzue Euskelga Taldea?

Denak gatoz "musikaeskola" desberdinetatik: irish music, galiziar musika, heavya, klasikoa, etab. Taldea honako hauek osatzen dugu: Ermuko Luis Arias (irlandar txirula, whistles eta galiziar gaita), Eibarko Iñaki Ortega (whistles, ullean pipe eta bodhran), Italiako Walter Tuzzeo (baxua), Zallako-Irlandako Johnny Kinnaird (gitarra eta ahotsa) eta ni (biolina eta ahotsa).

- Nola hasi zinen taldean?

Hasieran Johnny, Iñaki eta Luis elkartu ziren. Ni beste talde batzuetatik ezagutzen ninduten eta deitu egin zidaten. Geroago Walter Tuzzeo hasi zen (baxua). Musika mota hau nahiko zaila da biolinarekin jotzeko eta hasieran lan handia egin behar izan nuen. Maila handia eduki behar da. Taldearekin nire lehenengo aktuaioa Zallako taberna baten izan zen eta zuzeneko kontzertuak ematen jarraitu dugu. Esaterako, ekainean Celtic Glasgow taldea Eibarrera etorri zenean Untzagan jo genuen; martxoan Laurel&Hardy eta joan den barixakuan Ermuan.

- Kontzertuak ematen dituzuen bitartean, disko bat prestatzen ari zarete...

Bai. Errepertorioa momentu honetan nahiko ondo daukagu. Gure ideia maketa bat ateratzea zen, kostu handirik gabe, gehienbat lekuetara bidaltzeko eta, horrela, taldea promozionatzeko. Baina oso perfektionistak gara eta, azkenean, disko itxura hartzen ari da. Legarreko lokalean egiten

gaude eta teknikari moduan, gainera, Walter dabil. Oso ona da. Niri beste tekniko batzuekin grabatzea tokatu zait, baina ez dut bera bezalakorik ezagutu. Ekainerako ateratzea espero dugu eta horrela kontzertuetara eraman ahal izango dugu, askotan jendeak eskatu egiten du-eta. Momentuz bertsoak egiten ditugu, dena da nahiko tradizionala, baina ez dugu baztertzen aurretik egon ginen *Seafóid* taldearen abesti batzuk berreskuratzea, eta euskal musikari pisu handiagoa eman nahi diogu.

- Biolina txikitatik jotzen duzue eta talde desberdinetan ibilitakoa zara. Horretaz gain zure lana daukazu. Nola moldatzen zara?

Osasun mentaleko erizaina naiz Bermeoko psikiatrikoan. Beti ibiltzen naiz agendarekin eskuan eta "encaje de bolillos" egiten. Orain dela 22 urte hasi nintzen musika munduan, 8 urterekin. Etxean beti musika klasikoa entzun dut eta solfeoko irakasleak gomendatu zidan biolina. Lehen jendaurreko aktuaioak musika eskolaren bitartez izan ziren. Lehen taldean Ermuko Galizia Etxeko neska baten bitartez hasi nintzen 17 urterekin. Folk talde bat zen, *Nemon*. Gasteizen ikasten nengoenean, han ere talde batean sartu nintzen, koruak egiten eta biolina jotzen. Ska talde batean ere baxua jotzen egon nintzen. Animatzen bazara jendea ezagutzen zoaz. Musika Eskolako Mariatxi taldean nago orain dela 5 edo 6 urte. *The Vartools* eta *Voces y Cuerdas*-ekin kolaborazioak egin izan



Iñaki Ortega eibartarra eta Walter Tuzzeo italiar-eibartarra.

ditut. *Seafóid* taldean 2011n hasi nintzen Johnny Kinnaird eta Iñaki Ortega eibartarrarekin. Iñakik perkusioa jotzen zuen eta *Luther* talde ezaguneari ere ibilitakoa da. Orain, *Euskelgaz* gain, Durangoko, *Storm* taldearekin ere jotzen nabil eta Debabarreneko Orkestran ere banago. Beraz, beti musikarekin eta biolinarekin bueltaka. Nire bizitzan konstante bat da. Argi dago estilo asko jo daitezkeela biolinarekin: boleroak, mariatxiak, jazz, blues, country, folk...

- Nolako ondorioak ateratzen dituzue hainbeste taldetan egon eta gero?

Jotzen duzun jendearekin oso harreman berezia sortzen da. Musika sentimendua da, eta denok batera sentimendu hori adierazterakoan oso harreman politak sortzen dira. besteena entzuten ikasten duzu, ixilik egoten, eta aldi berean zure lekua bilatu behar duzu. Oso ondo etortzen da garapen pertsonalerako.



Montero motorzalearen denboraldiko lehen garaipena

Valentziako Ricardo Tormo zirkuitoan jokaturako Gaztela-Mantxako Txapelketako bigarren proban Aitor Montero eibartarrak lehenengoan lortutako postua hobetu zuen eta, berriro podiumera igotzeaz aparte, oraingoan goi-goian izan zen proba irabazi ondoren. Barixaku lehor eta hotzari eguraldi ona ekarri zuen zapatu beroak jarraitu zion eta, amaitzeko, domekan beldurtzeko zaparrada bota zuen. Baina guztira ondo moldatu zen Eibarko gidaria eta zapa-

tuan erlojuz kontrako entrenamenduetan lortutako bigarren postua hobetu egin zuen domekan eskuratutako denbora onenarekin. VHC Liqui Moly Racing Team bere taldeak egindako lanarekin batera, Monterok babesleen laguntza eskertu zuen: *“Bea transmisioak - Regina Chaineiko Juan Carlosek eta Michelingo Pablo Javier Sikujarak lan bikaina egin dute; eta zer esanik ez Alexis Escriva suspentsioetako teknikariak eta Victor Fogues mekanikariak”*.



Sei eibartar Zegama-Aizkorrin

Horetako bik, Igor Fernandezek eta Jose Lizundiak, Zegama-Aizkorriko II. Kilometro Bertikalean hartuko dute parte gaur, arratsaldeko 16:00etan hasiko den proban, beste 198 parte-hartzaileekin. Zegamako plazatik Irauleraino igoko dute, guztira bost kilometroko distantzia osatuz, kilometro bateko desnibelarekin. Eibarko beste laurek domekako XV. Zegama-Aizkorri mendi maratoin hartuko dute parte, goizeko 10:30ean hasita. Oskar Gisasolak, Ander Barrenetxeak, Jose Mari Bernedok eta Aitor Zubikarrik bost kilometro eta erdiko desnibelari egin beharko diote aurre, igo eta jaitsi erdibana banatuta. Azken proba horretako lehenek lau orduren bueltan amaituko dute mendi-lasterketa.

32 domina Ipuruako gimnastentzat Gipuzkoako amateur txapelketan

Aurreko zapatuan Ibarra jokaturako banakako eta taldeko Gipuzkoako amateur mailako txapelketan, Ipuruako 13 gimnastek hartu zuten parte kadete, jubenil eta senior lehiaketetan. Ipuruako senior A taldea azpitxapelduna izan zen, hiru aro eta hiru maza parekin egindako arikeri esker eta, banaka, Irati Yartzak txapela jantzi zuen urrezko hiru eskuratuta: bai sailkapen orokorrean eta baita aparatu bakoitzarekin ere, mazekin eta aroarekin. Irene Perez bigarrena izan zen hiru sailkapenetan eta Nahia Bilbao 3.a izan zen orokorrean eta aroarekin. Jubenil A mailan, bestalde, Lorea Armenzariz Gipuzkoako azpitxapelduna da eta Arrate Barojak zi-

larra lortu zuen zintarekin. Jubenil B-n Nerea Dezak jantzi zuen txapela, mazekin urrezkoa eta zintarekin zilarrezkoa bereganatuta. Kadeteen taldeak 2. postua eskuratu zuen bitartean, June Martinez da kadete A mailako txapeldun berria eta Nerea Etxebarria kadete B mailakoa. Domina zaparrada, beraz, Ipuruako gimnastek beste behin jasotako uzta.

Bihar Gipuzkoako Eskola txapelketa jokatu da Ordizian eta han izango dira Ipuruako infantil mailako bi talde eta 10 gimnasta. Bestalde, Gimnasiaren I. Egunean zozketaturako motorra hartu zuen aurreko barixakuan Amaia Casasola eibartarrak, 5.724 zenbaki sarituaren jabeak.



Senior mailako taldea.

Autobusa Manixen Tudelano animatzeko Herculesen aurka

Domekan 2. A mailara igotzeko promozio partidua jokatu du Javier Mandiola “Manixek” zuzentzen duen Tudelano eta lehen kanporaketan Alacanteko Hercules talde handia izango du aurkari. Alacantekoekin jokatu du, gainera, David Mainz Eibarko aurrelaria izandakoak eta hainbat igoera ezagutu dituenak (Eibarrekin, iaz Huescarekin). Dena dela, Eibartik antolatutako autobusak Manixen mutilak animatzea du helburu, Peña Manix Mandiola Laguntaldea antolatu baitu. Izena emateko Jordi Rubio peñako presidenteari deitu ahal zaio, 699903123 zenbakira. Autobusa goizeko 08:00etan irtengo da eta Tuteratik 18:00etan bueltatuko da.



Eibarrek agur esan zion denboraldiari Estatu Batuetara joan aurretik

Astelehenean egin zioten ohiko lore-
eskaintzarekin agurtu zuen denboraldia
Eibar FT-ko talde nagusiak. Hori bai, han-
dik bi egunera, eguaztenean, EEBB-ra jo-
an ziren datorren astean jokatu beharreko
bi partiduetara egokitzeko. Astelehenean
Philadelphia Furyren aurka jokatuko dute
Filadelfiako Richard Wacker Stadium-ean
eta eguenean, hilaren 26an, Las Vegasen
lehiatuko dute, New York Cosmos izen
handiko taldearen aurka. Han izango diren
egunetan hemengo delegazioek bertako
hainbat Euskal Etxe bisitatzeko asmoa du-
te eta, ez hori bakarrik, baita han sortuta-
ko Eibar FT-ren peñakoekin egoteko ere.

Espanyolekin ligako azken partidua 4-2
galdu eta gero, eibartarrak 14. tokian sail-
katu dira eta Bartzelonako partidua a-
urretik bilatzen zuten 10. postua ez lortzeak
1.200.000 eurotan gutxitu du telebista-
eskubideak direla-eta taldeak jasoko duen
dirua. Hala ere, lore-eskaintzaren ondoren
Arrateko Kantabrian egindako bazkarian
Patricia Rodriguez zuzendari nagusi be-



Eibar FT-ko jokalaria, teknikaria, zuzendaritzakoak eta beste arloko langileak Arrateko santutegian.

riak esanda moduan, "aurten mailari on-
do eutsi zaio eta horrek asko lagunduko
du hurrengo denboraldirako planifikazioa
behar den moduan prestatzeko". Alex
Aranzabal orain arteko presidentea aste-
lehenean lagako du kargua eta bazkaria

aprobetxatu zuen agur esateko; hala ere,
astelehenean 18:00etan emango du az-
ken prentsaurrekoa. Haren postua bete-
tzeko Amaia Gorostizaren izena aipatu da,
baina martitzenean emango dute jakitera
zuzendaritzakoek azken erabakia.



100.000 ikusletik gora

Eibarko taldeak hamar aldiz jarri du azken den-
boraldian kartela sarrerarik geratzen ez direla
esateko, eta 100.000 ikusletik gora (106.994) bildu
ditu Ipuruan jokatuako 19 partiduetan. Batazbeste
aforoaren %83,27 hartu dute zaletuek denboraldian
eta partiduetan 5.230 ikusle bildu ditu, iaz baino 419
lagun gehiago. Ikusle gehien Bartzelonaren aurkako
partiduan izan ziren (6.100); Real Madrilen aurkako-
an 5.892 izan ziren eta Realaren kontrakoan 5.824.
Ipurua, bestalde, 1. Mailan gehien betetzen den ze-
laren artean dago, Real Madrilen Santiago Bernabeu
eta Sevillaren Sanchez Pizjuanen atzetik. Klubak
5.100tik gora bazkide ditu eta kopuru hori Eibarren
bizi garenon %18,24ra iristen da. Ipuruako txartel-
degietan ere orain lau denboraldi jasotzen zena
%318an handitu da: orduko 135.000 eurotik iazko
denboraldiko 565.000 euroraino.

Amaitu da Kudeaketa Teknikorako Adituen ikastaroa

Eibar Fundazioak Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean aurten
antolatu duen Foball Klubu Kudeaketa Teknikorako Adituen lehen ikastaroa
amaitu da, Ipuruako formazio geletan zazpi hilabetetan jardun eta gero. 25
ikasle izan ditu guztira eta arrakastatsua izan da, aitzindaria izan baita 1. Mai-
lako klubuen artean horrelako graduondo bat eskaintzen. Vicente Del Bosque
selektzioko hautagaiak inauguratu zuen azaroaren 28an eta sei modulo izan
ditu: Entrenamendua eta Prestaketa Fisikoa; Kirol zuzendaritza, Berregoki-
tzea eta Harrobiko foballa; Match Analysis eta Talentuen Detekzioa; Kirol Me-
dikuntza eta Fisioterapia; Kirol Elikadura; eta Kudeaketa, Management, Ko-
munikazioa eta Eibar Eredua.

Udako Kanpusa (ekainak 27/uztailak 9)

Kirola praktikatzear gain, hizkuntzak ikasteko aukera eta beste balore bat-
zuek indartzea izango dira Eibar FT-ko Udako Kanpusean landuko diren hel-
buruak. Aurreko astean Kekok eta Capak, Itziar Cenoz IK4 Tekniker-eko Mar-
keting zuzendariarekin, aurkeztutako Kanpusean "euskeraz izango da erabili-
ko den hizkuntza eta ingelesez ere erabiliko da". Txangoak egingo dituzte eta
aurten, berritasun moduan, neska-mutilak jasotzeko autobusak ere izango di-
ra (Durango, Azpeitia, Arrasate eta Ondarroatik). Astebeteko prezioa 285 euro da eta bikoia
470 euro. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 17ra arte eta, ondoren, ekainaren
22an, hitzaldi informatiboa eskainiko zaie gurasoei. Zapatuetan ate irekiak izango dira




Deporreko atletak bikain jubetil eta junior mailako Euskadiko txapelketan

Aurreko asteburuan Durangon jokaturako junior eta jubetil mailako Euskadiko txapelketan, Eibarko Klub Deportiboko atletak goi mailan jardun zuten, batez ere jaurtiketan. Horrela, jabalinarekin erakutsi zuten nagusitasuna erabatekoa izan zen: Odei Jainagak eta Ainhoa Azpiazuk txapela jantzi zuten juniorretan eta Andoni Egurrolak eta Elena Susaetak jubetiletan. Txapelduz aparte, Eneko Gisola eta Jone de Castro (azken hau Susaeta-rengandik 31 zentimetro) bigarrenak izan ziren jubetiletan. Txapeldukin jarraituta, Julen Teran 1.500 metroan nagusitu zen (4'12"90) eta Markel Gutierrez 5.000 metroko martxa proban. 4x100 metroko erreleboetan, nesken laukotea (Nerea Ereña, Alaitz Gonzalez, Marina Lahidalga eta Susaeta) bigarrena izan zen,

Txindokiren atzetik; mutilen laukotea (Iker Egidazu, Gutierrez, Jainaga eta Teran), bestalde, bosgarren sailkatu zen. Aurrekoetz gain, diskoarekin Susaeta eta Egurrola laugarrenak izan ziren eta Malen Jainaga zazpigarrena. Odei Jainaga hor ere txapelduna izan zen. Eta pisuarekin De Castro 7.a izan zen eta Erika Sanmamed 9.a. Jauzi hirukoitzean, bestalde, Alaitz Gonzalez-ek bosgarren amaitu zuen.

Jainagaren progresioak mugarik ez

Eibarko Klub Deportiboko 18 urteko atletak astetik astera dihardu markak egiten. Oraingoan, Durangon, jabalina 67,17 metroa botata, bi metro eta 15 zentimetrotan hobetu zuen orain dela bi aste Zaragozan ezarritako absolutu mailako Gipuzkoako marka. Horrez gain, berarena da



Jaurtiketetan nabarmendu ziren Eibarko atletak. Ainhoa Azpiazu, artxiboko irudian.

junior mailako Euskadikoa ere (Durangon 20 metro atera zion bigarrenari). Tarte motzean, beraz, hirugarren aldiz egin du marka Jainagak.

Urkiak atzera egin du Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketan

Lasturren jokaturako jaurtialdiaren ondoren gauzak zail ipini zaizkie Asola Berriko ordezkari, 22 txirlorekin daudenak bi badira ere, Unai Loiola liderra bost txirlora dutelako. Mikel Urkiak jardunaldi kas-



Lasturren egindako azken jaurtialdiaren irabazleak.

karra izan zuen eta orain Bittor Astigarraga taldekideak harrapatu du Gipuzkoako txapelketako sailkapenean. San Miguelekoak dira nagusi, hiru ordezkariarekin lehen lau postuetan: Unai Loiolak 27 txirlo ditu, Javier Osoro taldekideak 26 eta Floreagako Gorka Etxanizek 25 eta, hirukote horren atzetik, aipaturako Asola Berriko bikotea eta San Migueleko Xabier Loiola daude. Bihar Elgetan jokaturako denarekin, hiru jardunaldi geratzen dira txapelketa amaitzeko.



Alkidebak Kontent izango du aurkari Kopako finalean.

Penaltiek erabaki zituzten foball zaletuko Kopako finalistak

Kontent-ek eta Bar Aretok bana berdindu zuten eta husnako berdinketarekin amaitu zuten euren partidua Alkidebak eta L.P. Machado Tankemans-ek. Parekotasun horren aurrean, penalti puntuak erabaki zuen bihar 10:00etan jokaturako den finaleko protagonistak zeintzuk izango diren. Kontent eta Alkideba izango dira, nor baino nor, Koparen bila. Ondoren, 12:45 inguruan, denboraldiko sariak banatuko dira, baita Ligari dagozkionak ere.



LUIS GABILONDO MEKOLALDE

2016ko maiatzaren 13an hil zen,
85 urterekin

Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



Energia Hiriko txirrindulariak protagonista ihesaldietan

Iker Goikoetxea eta Aitor Hernandez sei txirrindulariren ihesaldian sartu ziren aurreko zapatuan Beasainen jokaturako 23 urtetik azpikoen proban; hala ere, tropelak irentsi egin zituen eta, Telco taldeko Cañaverl kolonbiarrak iraba-

zitako lasterketan, Victor Cordon izan zen eibartarren ordezkariarik onena, 34. postuan. Domekan Bergaran jokaturako proban, Parking taldeko Erreskin izan zen irabazlea eta Armendariz (32.a) Energia Hiriko onena.

Eibar FT-ko neskek 10. postuan amaitu zuten 2. Mailan

Mariñorekin Unben 0-1 galduta amaitu zuten denboraldia Felix Recioek zuzentzen dituen neskek eta, mailari eutsita, 10. postuan sailkatu dira euren lehenengo urtean maila berrian. Entrenatzaileak denboraldian gutxien jokatu dituztenak jarri zituen zelaian, baina maila

ona erakutsi zuten ordezeko horiek; gainera, gola sartzeko gertu izan ziren hainbat unetan. Behin Liga amaituta, orain Euskal Kopa izango dute hurrengo erronka eta lehen aurkaria Erandio Betiko Neskak, Euskal Ligako taldea, izango dute asteburuan.

Concepto Egilek bosgarren amaitu du Liga



Bastidan bertako Mahastiak taldeari 1-6 irabazita, Debabarrena areto-foballeko lehen taldeak bosgarren postuan amaitu du Bigarren B mailako bigarren multzoan. Trevik bi gol sartu zituen eta bana eskuratu zuten Gabik, Yahyak, Asierrek eta Ikerrek (argazkian). Atsedendira ere aurretik erretiratu zen Elgoibarko taldea, 0-3koarekin, bi kontraeraso eta bandatik ateratako baloi bat baliatuz. Denboraldia aurrerapauso izan da Debabarrenakoentzat, kontuan izanda, batez ere, taldean eman diren aldaketak.



Osoro anaiak indartsu triatloi probetan

Aurreko zapatuan Iruñan jokaturako denboraldiko lehen triatloi luzean (2 km igerian + 90 km bizikletan + 21 km korrika) Delteco Eibar Triatloi Taldeak ordezkaritza zabala izan zuen eta Pello Osoro lehenengoetatik gertu izan zen, seigarren postuan amaitzeko. Bere taldekideak nahiko berdintsu sartu ziren: Iker Aranzibia (149), Adur Juaristi (152), Iñigo Unanue (153) eta Javier Murcia (189).

Domekan, ostera, ohorezko postuetara iritsi ziren Hondarribiako sprint triatloian. Txomin Osoro 10.a izan zen, Enrique Guruzeta (72), Xabier Arrieta (74), Jon Illarramendi (91) eta Ioseba Tamayoren (116) aurretik. Txomin onena izan zen 23 urtetik azpikoen artean eta Illarramendi bigarrena beteteranoen V2 mailan. Proba horretan Aitziber Urkiola eibartarra podiumera heldu zen, hirugarren postuan amaituta.

Ibilaldia **maiatzak**
2016 **durangon** **29**

Goizeko **09.30**ean
IRTENDA



Arratsaldeko **19.30**etan
BUELTATZEKO

dagigun!



IBILALDIA 2016
DURANGO



ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com



ESTI REDONDO
(EHNE)

- Zer eskainiko duzu maiatzaren 24ko hitzaldian?

Balkoietan ortua jarri nahi dutenentzako hitzaldia izango da. Ideia hau bultzatzeko azalpenak emateaz gain aholku praktikoak ere emango ditut.

- Udaberria landatzeko sasoi onena izanik nolako gauzak hartu behar ditugu kontuan?

Egia da San Isidrotik San Juanetara momentu aproposa dela ortuan landatzeko. Dena dela, kontuan izan behar dugu gero abuztuan oporretara joango garen edo ez. Landare batzuk, dena dela, nahiko azkar hazten dira, batez ere hostoak dituztenak: letxugak, espinaka, rukulak... Txikitxoak direnak ere hazten dira arinago, rabanitoak, esaterako.

“Etxeko balkoiak eta leihoak erabil daitezke ortuak prestatzeko”

Maiatzaren 24ean, martitzena, Esti Redondok “Ortuak balkoian” hitzaldia emango du, 19:00etatik aurrera ...eta kitto!ko lokaletan (Urkizu 11). Azken urteetan gero eta normalagoa da balkoi eta terrazetan ortu txikiak jartzea eta Esti Redondok gure ortua martxan jartzen lagunduko digu. Kazetaritza ikasi zuen eta urte asko daramatza munduan zehar (Mexiko, Nikaragua, Guatemala, Argentina, Australia...) tokian tokiko nekazal mugimenduak eta nekazaritza ekologikoa aztertzen. Bizkaian ortu biointentsiboak martxan jarri ditu eta, tailer eta hitzaldien bitartez, bere ezagutza konpartitzen dihardu EHNErekin elkarlanean.

- Nolako abantailak eskaintzen dizkigute etxean izan ditzakegun ortu hauek?

Sukaldetik gertu dauzkagunez errazagoa da zaintzea, gainean egotea. Ureztatzeke ez dugu etxetik irten beharrik, eta hau abantaila handia da, zalantzarik gabe. Hala ere, landare hauek zaintza gehiago behar izaten dute. Kontuan izan behar da lur gutxiago izateagatik hobeto zaindu behar ditugula, azken finean ekosistema artifizial bat sortzen ari garela. Ortuak argitasuna behar dute eta hori ere oso kontuan hartu beharreko faktorea da.

- Esan daiteke moda bihurtu dela ortua balkoian izatea?

Ez dakit modan dagoen zerbait den

ala ez baina egia da azken urteetan gero eta ortu gehiago jartzen direla balkoi eta terrazetan. Eta ez bakarrik balkoietan, leihoetan ere jarri dezakegu gure ortua. Lehen balkoi eta leihoetan lore apaingarriak jartzen ziren bakarrik, eta orain ohikoa da elikagaiak landatzea. Eta zergatik ez? Egia esan kanpora begira daukagun edozein espazio erabili daiteke ortua prestatzeko. Letxugak, kalendulak... erabili ahal ditugu entsaldak prestatzeko, eta erromeroak urte osoan zehar infusioak egiteko. Gainera oso politak dira. Batzuetan balkoiak ez ditugu ondo aprobetxatzen eta trastoiz betetzen ditugu. Hitzaldian ortu hauek praktikan nola egin daitezkeen azalduko diet interesa duten guztiei.

Zinea eta Osasuna zikloa



Agifes-ek (Gaixotasun Mentala dutenen eta familiako en Gipuzkoako Elkarteak) antolatutako "Zinea eta Osasuna" emanaldi-zikloaren barruan, datorren astelehenean, 19:30ean "El solista" (Joe Wright) pelikula emango dute Coliseoan (1. aretoan) eta, jarraian, filmaren inguruko solasaldia egingo da. Sarrera doan izango da (gonbidapena Agifes-en Donostiako egoitzan edo Coliseoko leihatilan hartu behar da, emanaldi bakoitzaren aurreko astelehenerako).

Maria Teresa Cervantesen poesia Portalean



Bihar 19:00etan “El viaje de Teresa”, Maria Teresa Cervantes poetari eskainitako errezital monografikoa egingo da Portalean, Maite Lorenzok gidatzen duen Itzamna poesia tailerrekoek antolatuta. Idazlea 50eko belaunaldiko kidea da, gaur egun Cartagenan bizi da eta 85 urte izan arren ez dio inoiz idazteari laga. Bere lanik berriena, "La travesía de los sentimientos" (Ediciones Torremozas) kontakizun laburren bilduma argitaratu berri du.



Txistularien kontzertua domekan

Domekan 12:30ean Usartza txistulari taldeak kontzertua emango du udaletxeko arkupeetan, Elena Perezek zuzenduta. Egunerako prestatu duten egitaraua honako hau da: "Minuetoa" (Eusebio Basurko), "Abendua" (Demetrio Iriarte), "Ibai Ona" (Joakin Iruretagoiena), "Udaberria" (Guillermo Lazkano), "Zubigain" (J.I. Ansorena) eta "Botxo" (J.I. Ansorena).



Kontzertu asteburua Ez Dok-en

Zuzeneko musikak beteko du asteburua Ez Dok tabernan. Gaur gauean Bueno talde asturiarraren "Perros santos y refranes" diskoaren aurkezpen-kontzertua eta Soldado Vasiliren emanaldia izango dira bata bestearen atzetik, 23:30ean hasita. Eta bihar gauean, beriz, The Reverendos talde bizkaitarrak "Fire", bere lan berria zuzeneko emanaldian aurkeztuko du. Beti-ko moduan, sarrera doan izango da.



Sorollari buruzko dokumentala

Astelehenean 20:30ean "Sorolla. La emoción del natural", Jose Luis Lopez-Linaresek zuzendutako dokumentala emango dute Coliseoan (2. aretoan). Ikus-entzunezkoa 2009an Madrilgo Prado Museoak maiztzeetik irailera bitartean hartu zuen erakusketaren harira sortu zuten eta ordubeteko iraupena duen lanak margolari ezagunaren bizitza kontatzen du, horretarako Sorollaren familiaren argazki zaharrez baliatuta.



"Barbantxo 3D"

Astelehenean, Debabarreneko eskolarteko XXXII. Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan, Logela Multimedia talde bizkaitarrak "Barbantxo 3D" antzezlana eskainiko du 15:00etatik aurrera Hezkuntza Esparruko antzokian (sarrera doan izango da). Barandiaranek Euskal Herriko ahozko tradizioetik jasotako ipuinetan badira tamaina txikiko hainbat pertsonaia eta Logela Multimedia, ipuin horien pasarte batzuk moldatu eta "Barbantxo" egitasmo multimedia sortu du, horretarako hiru osagai batuta: 3D antzezlana, ipuinaren argitalpena eta musika sorkuntza.

Untzaga argazki-estudio bihurtuta

Deporreko Argazki Taldeak hilabete honetan garatzen diharduen Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren barruan, aurreko zapatuan Untzaga aire libreko argazki estudio bilakatu zuten,



arratsalde osoa bete zuten topaketan: animatu ziren guztiei estudioko argazkia edo lbarkurutzeko iturria eta Pantxika astoa protagonista duen dekoratuan erretratua egin zieten, gero lkatzen doan hartzeko aukera emanda. Horrez gain argazki ikusgarriak ipini zituzten salgai eta argazkilaritzari lotutako beste hainbat jarduera prestatu zituzten.

Muñoaren liburu berria

Eguaztenean aurkeztu zuten "Bidean gaude, aurrera goaz, joan zirenekin" (Ataramiñe), Ibon Muñoa Arizmendiarraren hirugarren liburua Belego tabernan. Auzolanean muntatutako lana ezagutarazteko ekitaldian Oier Gonzalez eta Markel Ormazabalek "Burdinazko hariak, plastikozko goilara eta maitasun lubrikatua" kartzelari buruzko gogoeta musikatua eskaini zuten eta, liburuaren egileak urteak betetzen zituela ospatzeko, merienda ere egin zuten. Muñoaren libururako irudiak Mikel Zarrabek egin ditu eta hitzaurrea, beriz, Jon Etxabek idatzi du.

Berbalagunak Atarrabian

Aurreko zapatuan ospatu zen aurtengo Mintza Eguna Atarrabian, orain dela hamar urte jaia lehen aldiz ospatu zen herri berean. Urteroko moduan Euskal Herri osoko mintzalagunek egiten duten lana eta ahalegina aitortzeko aitzakiarekin batu ziren Gasteiztik, Bilbotik, Deriotik, Donostiatik, Hondarribitik, Baztandik, Bortzirietatik, Eibartik eta beste hainbat tokitatik joandako 140 bat lagunak eta ederto eman zuten eguna Atarrabiako Karrikaluzek eta Topaguneak antolatutako festan: Paz de Ziganda ikastolako haurrek aureskua dantzatu zieten ongi-etorria emateko eta, hamaiketakoa hartu eta gero, batzuk Atarrabian barrena eta beste batzuk, berriz, Oihana mendira joan ziren. Eguerdiko triki poteoa eta bazkaria amaituta, mintzakideen artean sariak banatu zituzten. Aurten, Sorluzeko, Eguesibarko eta Txorierriko kideei aitortu zitzaizen egindako ahalegina.



Eibartik joandako berbalagunek egunaz gozatzeko aukera izan zuten.



Alberto Martinez barakaldotarraren "Tamtam"

Xabier Arrietaren
"Pare bat txikito
eta kito!"



"Txaranga"



"Chupi-pandi!"

SAN JUANETAKO kartela eta pegatina

Barixakuan batu zen epai-mahaia "Sanjuanak Eibarren" kartel-lehiaketako irabazleak aukeratzeko eta aurtengo irabazlea Barakaldoko Alberto Martinez Ortiz izatea erabaki zuten, "Tamtam" izeneko lanarekin. Umeen artean, 11-14 urte bitartekoen mailan irabazlea Malen Azurmen-di Zalduegi izan da, "Txaranga" kartelarekin eta 10 urtera artekoetan, berriz, saria Naiara Gutierrezek jasoko du "Chupi-pandi!" lanarengatik. Bestalde, San Juan jaiei begira alkohol larregi ez edatera animatzeko pegatina-lehiaketaren irabazlea Xabier Arrieta Aldazabal izan da, "Pare bat txikito eta kito!" goiburuko diseinuarekin.

Euskal Jaiko afari eta bazkarirako txartelak Deporren salgai

Klub Deportiboaren eskutik 51. Euskal Jaia ospatuko da maiatzeko azken asteburuan eta, urteroko martxari jarraituta, aurten ere kantu-afaria (maiatzaren 28an, 21:30ean) eta herri-bazkaria (maiatzaren 29an, 14:30ean) egingo dira Untzagako karpan, Euskal Jairako antolatu duten egitarauaren barruan. Egun bietan bertoko baserrietako produktuekin osatutako menua eskainiko dute eta joan nahi dutenentzat txartelak salgai daude Deporren, 12 eurotan (10 eurotan ume, ikasle eta langabe-tuentzat). Hilaren 26ra arte (edo denak saldu arte) egingo da erosteko aukera.



● **tartak**

● **enkarguak**

etxera

Bidebarrieta, 28

☎ 943 20 79 73

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

LORADENDA


– Lora eta landare natural eta lehorrak

– Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1

Tel. 943 20 33 29

eguraldia (EUSKALMET.NET)



Trinitate Jaiak ELGOIBARREN

Asteburuan Trinitateak ospatuko dituzte Elgoibarren. Zapatuan, besteak beste, Trinitateetako XV. Azoka Berezia egingo da, 10:00etatik 17:00etara. Horrekin batera baserrietako produktuak egongo dira salgai Lekueder parkean eta, azokak irauten duen bitartean, abere erakusketa egingo da Aita Agirre plazan. Lekuederreko karpak Kalitatezko produktuen dastaketa hartuko du eta 13:00ean herri kirol erakustaldia hasiko da, Kalegoen plazan. Bestalde, aurten nagusien danborrada lehen aldiz arratsaldez, 19:00etan egingo da. Eta domekan, Trinitate Egunean, 09:00etako dianarekin hasiko dira ekitaldiak. 10:00etatik 14:30era XXI. Artisau Azoka egingo da Lekuederren. Umeen danborrada 12:00etan hasiko da eta 17:30etik aurrera erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira egingo da, Elgoibarko Dultzaineroekin.



Kirol Eguna SORALUZEN

Bigarrenegoz ospatuko da Kirol Eguna Soraluzen, zapatu goizean hasi eta iluntzera arte, herriko hainbat gunetan. Alkarrekin Soraluze Eginez prozesuan beharrean diharduen Kirol Batzordeak antolatutako egitaraua 11:00etan hasiko da, piraguismoarekin. Ordu berean zabalduko dituzte rokodromoia eta tirolina, Plaza Zaharrean. Eta Zubi Nagusian spinning-a egingo da, 11:30ean. Arratsaldez, berriz, boxeoa (18:30ean), dantzak (19:00etan) eta herri-kirolak (19:30ean) egingo dituzte.

hildakoak

- Vicente Olaya Alonso. 92 urte. 2016-V-12.
- M^a Luz Prieto Cuenca. 96 urte. 2016-V-12.
- Luis Gabilondo Mekolalde. 85 urte. 2016-V-13.
- Benito Arrizabalaga Bilbatua. 86 urte. 2016-V-14.
- Antonia Rementeria Ostolaza. 82 urte. 2016-V-16.
- Xabier Salaberria Urkiola. 79 urte. 2016-V-16.
- Severiano Fundazuri Onaindia. 83 urte. 2016-V-17.
- Angel Lopez de Egiluz Beltran de Heredia. 80 urte. 2016-V-17.

jaiotakoak

- Maria Recio Manterola. 2016-V-8.
- Soullaiman Znagui. 2016-V-11.
- Mohamed El Moussaqui. 2016-V-12.
- Lucia Soto Montes. 2016-V-15.

farmaziak

- Barixakua 20
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 21
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 22
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Astelehena 23
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 24
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 25
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Eguena 26
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Barixakua 27
EGUNEZ **Azku** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2016AN -
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

	1			5	7			8
	7				3		2	
		8	9			7		
								3
8	3	6				4	5	2
4								
		7			9	2		
	2		4				8	
5			8	1			7	

7	6	9	8	3	1	5	4	2
5	3	1	4	2	9	6	7	8
2	8	4	7	5	6	1	3	9
1	9	3	5	8	4	2	6	7
4	2	5	1	6	7	9	8	3
6	7	8	3	9	2	4	5	1
9	5	7	2	4	3	8	1	6
3	4	2	6	1	8	7	9	5
8	1	6	9	7	5	3	2	4

AURREKOAREN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 20

GAZTELEKUA

16:30. Disparatea. Indianokuan.

KONTZERTUA

22:00. Aitorpenak, "La sombra de Cliff" diskoa aurkezten. Tas Tas kafe antzokian.

KONTZERTUA

23:30. Bueno+Soldado Vasili. Ez Dok tabernan.

Zapatua 21

ESKUALDEKO NAGUSI AKTIBOEN I. TOPAKETA

09:30. Taldeak antolatzea eta kamisetak banatzea, Untzagan. Goizean hainbat jarduera. Arratsaldean, guztiei zabaldukakoak.

16:15. Udalerrien proposamenak aurkeztea.

18:30. Ginkana.

19:00. Goizean ikasitako koreografia aurkeztea.

19:30. Agurra.

TANTANEZ TANTAN

13:00. Gantxilla eskurik esku eramateko ekitaldia. Parte hartu nahi duenak, ibilbideko gune bat aukeratu eta 12:30ean egon beharko du. Urkizutik Untzagara.

GAZTELEKUA

17:00. Disparatea. Play/Wii. Indianokuan.

UMEENDAKO JARDUERAK

17:30. Eskulanak: "Lepoko dibertigarriak" (ekitaldi aretoan).

19:00. "Trompos Cometa" erakustaldi eta lehiaketa (S1 solairuan). El Corte Inglesean.

POESIA

19:00. Emanaldia: "El viaje de Teresa", Maria Teresa Cervantes poetaren eskutik. Portalean.

KONTZERTUA

23:30. The Reverendos. Ez Dok tabernan.

Domeka 22

IRTEERA

10:00. Gazta egiten ikas-teko irteera, Sosola base-rrira.

BISITA GIDATUA

11:30/13:30. "Duela 100 urteko Eibartik zehar paseatuz", Nerea Alustiza historialariaren eskutik. Armagintzaren Museoa.

KONTZERTUA

12:30. Usartza Txistulari Taldearen kontzertua, Elena Perezek zuzenduta. Udaletxeko arkupeetan.

GAZTELEKUA

17:00. Filma. Indianokuan.

Astelehena 23

ANTZERKIA

15:00. Debabarreneko eskolarteko XXXII. Antzerki Jardunaldiak: "Barbantxo 3D" (Logela Multimedia, Bizkaia). Hezkuntza Esparruan.

ZINE-FORUMA

19:30. "El Solista" pelikularen emanaldia eta, jarraian, solasaldia. AGIFES elkartearen "Zinea eta Osasuna" egitasmoaren barruan. Coliseoan.

Martitzena 24

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.
17:00. Joskintza tailerra. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Ortua balkoian", Illunabarriaren programaren barruan, Esti Redondo EHNE-ko kidearen eskutik. ... eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11).

GURE ESKU DAGO

19:00. Bilera irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

Eguaztena 25

IKASTEN

09:10. Mendi-ibilaldia: Donostia-Igeldo-Orio (bazkaria eraman). Trena hartzeko ordua, Ardantzan (Estaziñoan, 09:12an).

KONTZERTUA

19:00. Musika Eskolako ikasturte amaierakoa. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Entsegua. San Andres elizan.

DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Helduen entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa, 7).

Eguena 26

ODOL-ATERATZEA

18:30. Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulatorioan.

BILERA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrena. Portalean.

AMAÑAKO DANBORRADA

19:00. Umeen entsegua.
20:00. Helduen entsegua. Amañako ikastetxeko patioan.

KALEETAN KANTUZ

19:30. Entsegua. San Andres elizan.



Memoriaren Plaza domekara arte egongo da zabalik.

Erakusketak

Maiatzaren 22ra arte:

– "Memoriaren Plaza" (*Untzagako karpan*)

Maiatzaren 29ra arte:

– Jose Manuel Lucena (*Topalekuan*)
– Agustín Sagastiren "Arquitectura y tiempo" (*Portalean*)
– Koldo Badiñoren "Del caos al laberinto" (*Portalean*)
– Oskar Gaskon. Ohorezko Saria 2015eko I. Ojanguren Lehiaketan (*Portalean*)

Maiatzaren 31ra arte:

– Argizaiola Saria. (*Klub Deportiboan*)
– Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldea (*Ambigu eta Portalea tabernetan*)
– Manuel Vilanova-ren "Faces of the world" (*El Corte Inglesean*)
– Gipuzkoa Nazioarteko Saria (*Untzagako jubilatutxean*)

Maiatzaren 22ra arte:

– Jose Luis Apraizen arma-bilduma" (*Armagintzaren Museoa*)

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ARATZ, martitzenian lau urte beteko dozuz-eta. Familixa guztiaren partez.




Zorionak, GARAZI, bixar 13 urte beteko dozuz-eta. Familixa guztiaren eta, batez be, Gaizka anaixaren partez.



Zorionak, GORKA, bixar 12 urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez. Ondo pasau eguna!



Zorionak, SABINA, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Etxeko danon eta, batez be, Antonen partez.



Zorionak, AITOR, martitzenian hiru urtetxo egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, Enekoren partez.



Zorionak, ENARA, gure neskatilla maitagarriak domekan bost urte egingo dittu-eta. Ondo-ondo ospatuko doguz.



Zorionak, EGOITZ eta ANDRES, datorren astian zortzi urte egingo dozuz-eta. Urte politta izan deizuela.




Zorionak, JONE, martitzenian bost urte beteko dozuz-eta. Egun bikaiña pasau, etxekuen partez.



Zorionak, SUGAR, atzo bost urte egin zenduaz-eta. Ondo pasa, pototo. Familixakuen partez.



Zorionak, AIORA Goitandia, bixar hamar urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAULE, haraiñegun 9 urte egin zenduaz-eta. Patxo potoluak familixa guztiaren partez.



Zorionak, OLATZ, martitzenian 12 urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat familixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
21ean: 19:45
22an: 20:00

"La noche que mi madre..."
Zuzendaria: Inés París



(2 ARETOAN)
21ean: 17:00, 19:45, 22:30
22an: 17:00, 20:00

"Mi amor"
Zuzendaria: Maiwenn



(ANTZOKIAN)
21ean: 19:30, 22:30
22an: 17:00 (1 Aretoan), 20:00
23an: 20:30

"X-Men Apocalipsis"
Zuzendaria: Bryan Singer



(ANTZOKIAN)
21ean: 17:00
22an: 17:00

"Angry Birds. La película"
Zuzendaria: Clay Kaitis



(1 ARETOAN)
21ean: 22:30

"Capitán América"
Zuzendaria: Anthony Russo

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai Santo Domingo de la Calzadan. Ondo kokatua eta argitsua. Konponzetke. Prezio onean. Tel. 699-960037.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 660-047305. Belen.
– Pisua hartuko genuke alokairuan Lekeitio abuzturako. Erdigunean egotea eta igogailua izatea ezinbestekoak. Tel. 605-730388. Lurdes.
– Ikasle batzuk pisu bat alokairuan hartu nahi dugu Eibarren edo Ermuan. Tel. 608-827724 eta 677-808687.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilazioagatiki. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-573554.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-472167.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 681-065683.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia dendar moduan. Tel. 639-423493.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 612-481470.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko Eibarren. Tel. 632-426847.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 615-739367. M^a Angeles.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 692-588534.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-959575.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-223075.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-746668 eta 632-728235.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-201477.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-738472.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-044382.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-911709.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 671-924731.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 634-748531.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-378463.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Tel. 631-101991.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-463839.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu, garbiketarako egin eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-562380.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Orduka zabala. Tel. 612-545143.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 695-701753.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-064707.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka zabala. Tel. 612-245326.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 633-808931.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita gauzez ere) zaindu eta pegorak garbitzeko. Tel. 688-959575.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 678-814941.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-740755.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, mendia garbitu eta ortuan jarduteko. Tel. 604-134961.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-709827.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-408771 eta 943-743347.

4.2. Langile bila

– ...eta kitto-k banatzaileak behar ditu. 16 urtetik gorakoak, arduratsuak eta euskaldunak izan behar dira. banaketa.etakitto@gmail.com.
– Emakume euskalduna behar da asteburuetan bi nagusi zaintzeko. Interna. Tel. 625-700365.
– Pertsona behar da Amañako degustaziorako. Jornada osorako. Tel. 670-251280. igorvazquez@hotmail.com
– Sukaldari orientala behar da autoarekin. Tel. 670-672515.
– GKN Driveline enpresak ekoizpen langile posturako data-basea eguneratu behar du. Beharrezkoa: erdi edo goi-mailako heziketa zikloko titulua. Bidali curriculum: ifactory@in-cress.com
– Kamarera/o behar da asteburuetarako. eibarkafe@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Al-berto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ohe-kabia salgai. Egur argikoa eta gutxi erabilia. Bi koltxoik barme. Prezio interesgarria. Tel. 664-425380.

6.2. Eman

– Ohe-kabia salgai. Egur argikoa eta gutxi erabilia. Bi koltxoik barme. Prezio interesgarria. Tel. 664-425380.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

Ate irekiak

maiatzak 21 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017

www.mondragon.edu/gmhz



LABORAL
HEZIKETA



Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

M
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



IES UNIBHI

HEZIKETA ESKAINTZA

A ETA D EREDUAK

Aurrematrikula epea Ekainaren 6tik 17ra

PROIEKTUAK ETA

- JARDUERAK
-Praktikak Atzerrian
-HEZIBI
-Ikaskuntzak Eszenatokiak
-Osasunarentzako Programa
-Enpresa Birtuala
-UNI Encounter
-UrratsBat
-Hizkuntzaren Normalkuntza
-Nazioarteko Ikasle-trukea
-Ikasle Lan Poltsa



www.facebook.com/iesunibhi/



[//twitter.com/UniEibarErmua](https://twitter.com/UniEibarErmua)



[/user/UniEibarErmua1](https://www.youtube.com/user/UniEibarErmua1)

www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
Tel. 943208444

HEZIKETA FISIKOA

- ★Gorputz eta Kirol-Ekintzen Sustapena

INFORMATIKA

- ★Sistema Mikroinformatiko eta Sareak
- ★Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- ★Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
- ★Web Aplikazioen Garapena

MARKETING ETA MERKATARITZA

- ★Merkataritza Iharduerak
- ★Nazioarteko Merkataritza

ADMINISTRAZIOA

- ★Administrazio Kudeaketa
- ★Administrazio eta Finantzak
(goizez eta eskaintza partzialan arratsaldez)

Ate Irekien
Jardunaldiak

Maiatzak 28
11etatik 13etara



ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da. Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberitzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

B
www.NewBEE.eu

ESLABANen helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27 esk. eskuma. 3º ezkerre. ■ Apdo. 160
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Telf.: (+34) 943 820 407 ■ Fax: (+34) 943 820 724
E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com